

**Pobrezia,
desberdintasuna
eta gizarte
bazterketa**

Orion



ORIOKUDALA



Berio Pasealekua 11, 20018 Donostia
Tel. (+34) 943 31 00 34
siadeco@siadeco.eus / www.siadeco.eus

Siadeco^x
ikerketa aplikatua

Aurkibidea

| | |
|----------------------------------------------------------------------------------------------|------|
| Laburpena | 3. |
| 01. Helburuak..... | 11. |
| 02. Metodologia..... | 14. |
| 02_1 Inkestaren eta unibertsoaren arteko alderaketa..... | 15. |
| 02_2 Hizkuntza, zintzotasuna eta kalitatea..... | 18. |
| 02_3 Atal kualitatiboa | 20. |
| 03. Orioko egitura soziodemografiko eta sozioekonomikoa | 21. |
| 3.1. Biztanleria: adina eta jatorria..... | 22. |
| 3.2 Langabeziaren eragina Orion | 30. |
| 3.3 Enplegua: sektoreen eta lantokiaren arabera | 33. |
| 3.4 Batez besteko errenta pertsonala eta familia | 35. |
| 3.5 Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) | 38. |
| 04. Adierazle nagusiak, alderatuta | 40. |
| 4.1 Pobrezia eta gabezia egoerak | 41. |
| 4.2 Desberdintasuna | 51. |
| 4.3 Gizarte bazterketa | 55. |
| 4.4 Talde sozialak eta ahultasun handieneko etxebizitzak..... | 58. |
| 05. Inkestako emaitzen irakurketa orokorra | 68. |
| 5.1 Etxebizitzak | 69. |
| 5.2 Pertsonak | 81. |
| 06. Pobrezia, desberdintasuna eta gizarte bazterketa, Orioko eragileen ikuspuntutik | 97. |
| 6.1 Herriak jasandako aldaketa handiak..... | 98. |
| 6.2 Kolektibo zaugarrienak | 101. |
| 6.3 Gizarte Zerbitzuen lana | 103. |
| 6.4 Bereizketa ikastetxeetan..... | 105. |
| 6.5 Harreman sozialak | 107. |


Laburpena

Pobreziak, desberdintasunak eta gizarte bazterketak Orion zer nolako eragina duten aztertu du Siadeco Ikerketa Elkartek 2018an, Oriko Udalaren enkarguz. Horretarako, gaiaren inguruan Europa mailan erabili ohi diren adierazleei buruzko informazio kuantitatiboa biltzeko inkesta burutu du. Hura osatze aldera, metodologia kualitatiboak erabili ditu, udalerriko eragile ezberdinetako informatzaile kualifikatuen azalpenak eta hausnarketak jasotzeko.


Ikerketak emandako emaitzen arabera, ondorio nagusia da Oriko **etxebizitzaren %10etan, 200 etxebizitza inguruan, pobrezia eta gabezia egoera larriak jasaten dituztela**. Egoera horiekin lotuta, **diru-sarrera baxuenak dituztenen eta diru-sarrera altuenak dituztenen arteko aldea handia da** udalerrian. **Pobreziak gehien kolpatzen duen kolektiboa etorkinena da**, atzerrian jaiotakoena eta euren familia-taldeena. Kokapenari dagokionez, Alde Zaharra, Aita Lertxundi kalea eta Anibarko Portua urbanizazioa dira egoera larrienak kontzentratzen dituzten zonaldeak.

Inguruko lurralde-eremuekin alderatuta, pobrezia atalasetik beherako diru-sarrerak dituzten biztanleen ehunekoari erreparatuta, Oriko Gipuzkoaren eta EAEn mailan dago. **Pobrezia larriari dagokionez, ordea, lurraldearen eta autonomia erkidegoaren ehunekoa bikoiztu egiten du Oriok**, Espainiako estatuaren mailan kokatzeko. Pobrezia erlatiboan bizi direnen ehunekoa txikiagoa da, beraz. Pobreziak pobreago dira Orion, beste era batera esateko. Diru-sarreraren arteko aldeari dagokionez ere, estatukoarekin antza handiagoa du Oriko errealitateak, Gipuzkoakoarekin eta EAekoarekin baino.

Pobrezia atalasan azpitik bizi den biztanleria (%)



Pobrezia larriaren tasa (%)



Gini koefizientea



Pobreziaren atalasa: kontsumo-unitateko errenta baliokidearen medianaren %60.


Pobrezia larria: kontsumo-unitateko errenta baliokidearen medianaren %40tik behera.

Gini koefizientea: 0 berdintasun perfektua litzateke (pertsonek guztiak diru sarrera berdina) eta 100 erabateko desberdintasuna (pertsonek diru-sarrera guztiak, eta beste guztiak batere ez).

Iturria: Siadeco 2018, GFA-Gizarte Politikako Departamentua 2014, EJ-Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila 2016, INE 2017, EAPN 2018.

Bilakaeraren ikuspuntutik, udalerrian pobreziaren, desberdintasunaren eta gizarte bazterketaren inguruko beste ikerketarik egin ez baldin bada ere, badirudi egungo egoerak lotura estua duela udalerriak azken hamar-hamabost urteetan jasan dituen aldaketa sakonekin. **Izan ere, Orioko biztanleriak hazkunde handia izan du, baina bi maila sozioekonomiko nabarmen bereiz daitezke udalerriak hartutako herritar berrien artean.** Alde batetik, inguruko herrietako jende asko erakarri du Oriok, batez ere, kokapen eta komunikazio onak dituelako eta etxebizitzaren prezioa merkeagoa delako, Donostiarekin eta Zarautzekin alderatuta. 2009-2014 epean eman zen hazkunderik handiena, alde horretatik.


Inguruko herrietatik Oriora bizitzera joandakoetako asko gazteak dira (inkestako datuen arabera, 26-40 adin tartean, Orion jaiotakoen ehunekoia eta Gipuzkoako beste udalerrri batean jaiotakoena berdina da: %34). **Erdigunetik ibai aldera eta hondartzara aldera eraiki diren etxebizitza berrietan kokatu dira**, eta Oriotik kanpo lan egiten dute, batez ere. **Maila sozioekonomiko ertain-altua dute**, horien artean apenas ematen baita pobrezia edo gabezia egoera larririk. Fenomeno horrekin lotuta, batez besteko errenta hazi egin da Orion, azken urteetan.



Iturria: Eustat 2017, Siadecok landua

Aldi berean, alabaina, **atzerriko herrialdeetan jaiotako etorkinak ere hartu ditu Oriok.** Inguruko herrietatik etorritakoak baino gutxiago dira, kopuru absolutuetan, baina ikerketaren helburua

kontuan hartuta, arreta gune nagusi bilakatu dira. Izan ere, **atzerrian jaiotako erreferentziako pertsona¹ duten etxebizitzaren erdietan baino gehiagotan pobrezia atalaren azpitik bizi dira. %40 pobrezia larria**. Gainera, laurdenak gabezia material larria jasaten du, eta %57k pobrezia energetikoa. Horiek horrela, batez besteko errenta igo den bezala, udalerrian Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dutenen ehunekoa ere igo egin da.



Iturria: Siadeco, 2018

¹ **Erreferentziako pertsona:** familiako beste kideen ahaidetasun-harremanak zehazteko kontuan hartzen den pertsona da. Familia nuklearretan aita da erreferentziako pertsona, edo aitarik ez badago ama. Nukleo anitzeko familietan ere aita izango da erreferentziako pertsona, edo aitarik ez baldin badago ama, belaunaldi zaharrenekoa edo belaunaldi beraren barruan zaharrena dena. Familia nukleorik ez baldin badago, ahaidetasuna duten pertsonak egon zein ez, pertsona zaharrena izango da erreferentziako pertsona. Familia bakoitzean erreferentziako pertsona bakarra egongo da. *Iturria: Eustat.*

Pobrezia energetikoaren ehuneko handia lotuta dago, neurri handi batean, **hezetasun arazoekin**. Alde zaharrearan dute eragin handiena, etorkin gehien bizi den zonaldean, hain zuzen ere. Dena den, udalerrri osoan hedatutako arazoak direla antzeman daiteke ikerketa honetan, **etxebizitzaren %27,5ek jasaten baitu (800 etxebizitza inguru)**. Nabarmendu, era berean, etxebizitzaren %8,5etan (190 etxebizitza inguru) oztopo arkitektonikoak daudela, mendekotasuna duten pertsonak bizi direlarik.

Badaude beste bi arrisku-talde, pobrezia eragin nabarmena jasaten dutenak: erreferentziako pertsona langabezian duten familia-taldeak eta guraso bakarreko familiak. **Erreferentziako pertsona langabezian duten etxebizitzaren %40tan pobrezia larrian bizi dira**, eta %30etan pobrezia erlatiboan. **Gurasko bakarreko familiei dagokienez (ama bakarrek dira, batez ere), %15,6k jasaten du pobrezia larria**, eta %18,8k pobrezia erlatiboa. Familia edo talde motari erreparatuta, bestalde, azpimarratzekoa da pobrezia larria altua dela “Beste familia mota bat” (%22,2) eta “Ez da familia taldea” (%20) multzoetan. Hiru belaunalditako senideak dituzten familiak, etxebizitza elkarbanatzen duten familiak edo senide ez diren taldeak daude, besteak beste, egoera horien atzean.

Erreferentziako pertsonaren lan-egoeraren arabera (%)

| | | Bere kontura egiten du lan | Familia-negozioan egiten du lan | Soldatapeko enplegu mugagabea edo aldi baterakoa dauka | Aldi baterako baja gaixotasunagatik edo amatasunagatik | Etxeaz arduratzen da | Erretiratua, erretiro aurreratua, ez da gehiago ari | Baliaezintasuna/ezgaitasuna | Langabezian | Guztira |
|-------------------------|-----------|----------------------------|---------------------------------|--------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------|----------------------|-----------------------------------------------------|-----------------------------|-------------|---------|
| Pobrezia | Erlatiboa | 7,9 | 0,0 | 5,3 | 25,0 | 50,0 | 11,6 | 0,0 | 30,0 | 9,7 |
| | Larria | 5,3 | 33,3 | 7,8 | 25,0 | 50,0 | 5,0 | 0,0 | 40,0 | 9,5 |
| Gabezia material larria | | 0,0 | 0,0 | 3,4 | 0,0 | 50,0 | 0,0 | 0,0 | 16,7 | 3,4 |
| Pobrezia energetikoa | | 21,1 | 0,0 | 35,0 | 0,0 | 50,0 | 21,5 | 50,0 | 50,0 | 30,7 |


Iturria: Siadeco, 2018

Pobrezia larrian bizi direnek jasaten dituzten zenbait arazo irudikatze aldera, nabarmentzekoak dira inkestan bildutako zenbait datu. Esate baterako, Orioko **100 etxebizitza ingurutan argindarra, ura, gasa edo bestelako erregaiak ordaintzerakoan atzerapenak izan dituztela**, edo ez dituztela ordaindu. Horrekin lotuta, **100 etxebizitza ingurutan hotza pasa dute azken urtean, etxebizitza tenperatura egokian mantentzeko ezintasunagatik**. 100 etxebizitza pasatxo dira, hain

zuzen ere, euren burua nahiko pobretzat, pobretzat edo oso pobretzat dutenak, eta beste hainbeste, pertsona okupaturik, pentsiodunik edo langabezia prestaziorik jasotzen duen pertsonarik gabeak. **Azken urtean gosea pasa dutenak gutxiago dira, baina 50 familia-talde dira, hala ere.** Muturreko kasuekin lotuta, sukalderik (etxetresna elektrikoa) edo garbigailurik ez duten etxebizitzak detektatu dira. Inkestako emaitzen arabera, 15 inguru izan daitezke Orion.

Pobrezia “arinago” bat ere badago, horren larriak ez diren egoerekin lotua, eta biztanleriaren ehuneko handiago bati eragiten diona. Esate baterako, **Orioko 300 etxebizitza ingurutan arropa, elikadura edo etxebizitza gastu oinarrizkoak murriztu behar izan dituzte. 300 etxebizitza ingurutan, era berean, ez dute urtean aste betez oporretan joateko aukerarik izan.**

Pobrezia erlatiboarekin lotutako egoerak izan daitezke horiek. Alde horretatik, badaude horren egoera larriak bizi ez dituzten arren, zaurgarritasun arriskua duten kolektiboak. Azpimarratzekoa da, esate baterako, **erreferentziako pertsona emakumea duten familia-taldeetan, pobrezia erlatiboa erreferentziako pertsona gizonezkoa duten familia-taldeetakoaren bikoitza dela: %8,2 erreferentziako pertsona gizonezkoa denean eta %16,4 emakumezkoa denean.**



Iturria: Siadeco, 2018

Era berean, **erreferentziako pertsona adinekoa denean pobrezia erlatiboa altua da, gainerako adin-tarteekin alderatuta**: %17koa 61-70 urte arteko erreferentziako pertsona duten etxebizitzetan, eta %10,7koa 70 urtetik gorakoa dutenen kasuan. Datu horrekin lotuta, erreferentziako pertsona erretiroa hartutakoa den etxebizitzetan %11,6tan pobrezia erlatiboan bizi dira.

Adin-tarteen arabera _ Erreferentziako pertsonak (%)

| | | 17-25 urte | 26-40 urte | 41-50 urte | 51-60 urte | 61-70 urte | >70 urte | Guztira |
|-------------------------|-----------|------------|------------|------------|------------|------------|----------|---------|
| Pobrezia | Erlatiboa | 33,3 | 5,6 | 9,7 | 9,0 | 17,0 | 10,7 | 9,7 |
| | Larria | 33,3 | 10,3 | 10,7 | 11,9 | 6,4 | 6,0 | 9,5 |
| Gabezia material larria | | 0,0 | 0,0 | 6,5 | 3,9 | 4,5 | 0,0 | 3,4 |
| Pobrezia energetikoa | | 21,1 | 66,7 | 35,5 | 34,0 | 40,3 | 14,9 | 30,7 |

Iturria: Siadeco, 2018

Kasu larrienekin baino, pobrezia “arinago” batekin lotu daitezke, beraz, adinekoak. Bestelako arazo batzuk jasaten dituzte, gainera: 61-70 urte artekoen %21,1ek hirugarren pertsonetik mendekotasuna duela adierazi du, eta %4,4k bakardadea edo tristura sentitzen dituela. 70 urtetik gorakoaren artean %36,4koa eta %9,1ekoa dira portzentaje horiek.

Edonola ere, eta biztanleria osoaren adin-tarteak kontuan hartuta, **agerikoa da pobrezia gazteenengan duen eragina. Izan ere, asko dira euren familiaren egoera ahularen eragina jasaten duten haur eta gazteak**. Bereziki azpimarratzekoa da 17 eta 25 urte artekoen %14 bizi dela pobrezia erlatiboan dauden etxebizitzetan, eta %20,9 pobrezia larrian daudenetan. Hortik behera, 6-16 urte artekoen %13 eta 6 urtetik beherakoaren %16,5 bizi da pobrezia larrian.

Adin-tarteen arabera _ Biztanleria osoa (%)

| | | <6 urte | 6-16 urte | 17-25 urte | 26-40 urte | 41-50 urte | 51-60 urte | 61-70 urte | >70 urte | Guztira |
|-------------------------|-----------|---------|-----------|------------|------------|------------|------------|------------|----------|---------|
| Pobrezia | Erlatiboa | 8,3 | 8,9 | 14,0 | 5,6 | 11,5 | 7,3 | 16,7 | 9,9 | 9,3 |
| | Larria | 16,5 | 13,0 | 20,9 | 11,2 | 10,4 | 8,8 | 6,7 | 5,0 | 11,3 |
| Gabezia material larria | | 0,0 | 6,4 | 7,3 | 4,7 | 5,6 | 3,1 | 4,4 | 0 | 0 |
| Pobrezia energetikoa | | 21,1 | 39,4 | 39,1 | 36,0 | 36,0 | 33,3 | 37,2 | 15,6 | 21,5 |

Iturria: Siadeco, 2018

Metodologia kualitatiboen bidez, inkestako emaitzetan horren agerikoak ez diren informazio eta ikuspuntu osagarriak bildu ahal izan dira. Alde batetik, **bertakoek etorkinekiko duten abantaila handiena “koltxoia” dela**, senideen edo ingurukoen babes. Horrekin lotuta, nabarmendu inkestako etxebizitzaren %8,8k jaso duela laguntza ekonomikoa azken urtean, gehien-gehienek (%7,8) senide, lagun edo bizilagunena. Babes horrek bertakoen arazo asko estaltzen dituela uste dute informatzaileek, eta pobrezia eta gabezia egoeren aurkako babes handiena dela. Baita enplegua baino gehiago ere, gaur egun, zabaltzen ari den eta gazteei eragiten dien “prekarietatea” dela eta. Bestetik, adinekoen zaurgarritasunari dagokionez, azpimarratu dute Orion gizon-emakume askok pentsio baxuak eduki arren ondasunak dituztela, eta ondorioz ezin dutela pentsio osagarririk jaso.

Udallerriak azken hamar-hamabost urteetan jasandako aldaketa handiekin lotuta, **integrazioa eta kultur-aniztasuna landu behar direla** uste dute solaskideek. Behar hori berresten duen inkesta-datua da Orioko biztanleengan eragin gehien duen arazo soziala gaitzespena dela, eta atzerrian jaiotakoek %16,4k jasaten duela. Alde horretatik, ikastetxeen eta eskolaz kanpoko jardueren garrantzia azpimarratu dute informatzaileek. Bestalde, agerian gelditu da Orioko Udalak Gizarte Zerbitzuak eraberritzeko eta udallerriaren beharrezanetara egokitzeko beharra duela. Adinekoen kolektiboari zuzendutako zerbitzu eta prestazioez gainera, beste kolektiboen arazoei ere erantzunez, eta “harrera-leihatila” zerbitzua eskainiz.

Pobrezia eta gabezia egoera gehien pilatzen dituzten guneak Orion



Iturria: Orioko Udala, Siadecok landua.

01

Helburuak



Udalerrian egon daitezkeen pobrezia, desberdintasun eta gizarte bazterketa egoerak aztertzeko, Orioko Udalak egindako eskaerari erantzuten dio ikerketa honek. Behar sozialen inguruko diagnosi zabala eskaintzen du, eta **Europa mailan erabili ohi diren adierazleei buruzko datuak** ere eskaintzen ditu, udalerriko errealitatea inguruko lurralde-eremuekin alderatu ahal izateko.

Horretarako, **bai Gipuzkoako bai EAEko biztanleriaren premia sozialei eta pobrezia, desberdintasun eta gizarte bazterketa egoerei buruz egin izan diren lanak hartu dira erreferentzia** nagusi: Eusko Jaurlaritzak aspalditik lantzen dituen Pobrezia eta Ezberdintasun Sozialei buruzko Inkesta eta Gizarte Beharren eta Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika, eta Gipuzkoa mailan, Foru Aldundiak 2012an eta 2014an egin dituen Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko inkestak.

Erreferentzia izan diren lan horiek ahalbidetu dute autonomia erkidego eta lurralde mailan pobraziaren hedadura ezagutzea. Alabaina, ez dute udalerrri bakoitzaren egoera ezagutzeko modurik eskaintzen, laginak txikiak direlako. Behar horri erantzunez, **ikerketa honen helburua izan da, nagusiki metodologia kuantitatiboen bidez, pobraziaren, desberdintasunaren eta gizarte bazterketaren inguruan Orioren egoera zein den aztertzea**, eta premia sozial nagusiak identifikatu eta kuantifikatzea.

Analisi kuantitatibotik eratorritako informazioa osatze aldera, **metodologia kualitatiboa ere erabili da, batez ere gaiaren inguruan informatzaile kualifikatutzat hartu diren eragile edo norbanakoak elkarriketatuz**. Haiek emandako informazio eta ikuspuntu ezberdinek ikerlana aberasteko balio izan dute.

Pobrezia definituz

Baliabide ekonomikoen faltan oinarritu izan da, urtetan, pobrezia terminoaren definizioa. XX.mendearen erdi aldera, ordea, garaiko eraldaketa ekonomiko eta sozial handiekin lotuta, ikuspuntu mugatu hori gainditzeko lehen pausoak eman ziren. 1984 urtean, Europako Ekonomia Erkidegoak, pobreziaen aurkako bigarren programaren baitan, ondorengo defizioa eman zuen: “Baliabide ekonomiko, sozial edota kultural urrien eraginez, euren gizartean onargarritzat hartzen den bizimodutik kanpo geratzen diren pertsona, familia edo taldeen egoera” (EEE, 1984).

Ikuskera berri **horrek pobreziaen izaera erlatiboa eta estrukturala, eta berau eragiten duten faktore eta dimentsioen aniztasuna kontuan hartzen ditu. 80ko hamarkadatik aurrera, gizarte bazterketa** kontzeptu zabalagoa hedatu da Europan, pobrezia terminoaren ikuspegi ekonomiko eta material hutsa gainditzeko. Gizarte bazterketak pobrezia barne hartzen du; pobrezia gizarte bazterketa ez, ordea. Gaiaren inguruko erreferentziazko ikerketa nagusiek ere ikuspegi zabalago horri heltzen diote.

Txostenaren egitura

Sei atal nagusitan antolatuta dago txostena. Hasteko, **lanaren helburuak eta erreferentzia nagusiak** azaltzen dira. Bigarren atalean **lanaren ezaugarri tekniko-metodologikoak** zehazten dira. Hirugarrenean Orioko **egoera testuinguruan kokatzen da, zeharkako informazio** edo informazio dokumentalaren bitartez, arlo soziodemografiko eta sozioekonomikoan.

Laugarren atalean, Orion ematen diren pobrezia, desberdintasun eta gizarte bazterketa **egoeren irismena kuantifikatzen da, horretarako, gaur egun Europa mailan baliatu ohi diren adierazleak erabiliz eta konparatuz.** Eraitza nagusiak azalduta eta Orioren egoera alderatuta, bosgarren atalean **inkestan landutako gaien banan-banako irakurketa zabala eskaintzen da,** udalerriko errealitatean sakontze aldera. Seigarren eta azken atalak **metodologia kualitatiboaren bitartez bildutako informazio, ikuspuntu eta iruzkinak** biltzen ditu, azterketa kuantitatiboaren osagarri izateko asmoz.

02

Metodologia



02_1

Inkestaren eta unibertsoaren arteko alderaketa

Orioko 411 etxebizitzatan bildu dira pobrezia, desberdintasun eta gizarte bazterketa egoeren inguruko erantzunak. Eustat-en 2016ko datuen arabera 2.224 dira lehen etxebizitzak Orion, hortaz, $\pm 4,45\%$ eko izan da akats-tartea, $95,5\%$ eko konfiantza tarterako eta bariantza maximorako ($P = Q = 0,5$).

Etxebizitza bakoitzean bizi diren pertsona guztien inguruan galdetu dela kontuan hartuta, guztira, 1.177 lagunen inguruko datuak jaso ditu inkestak. Horien $48,3\%$ gizonezkoak, $48,7\%$ emakumezkoak eta 3% zehaztu gabeak.

1. Taula
Inkestaren eta unibertsoaren arteko alderaketa, sexuaren arabera

| Sexua | Inkesta | | Biztanleria | |
|----------------|--------------|------------|--------------|------------|
| | Kopurua | % | Kopurua | % |
| Gizonezkoak | 569 | 48,3 | 3.026 | 50,6 |
| Emakumezkoak | 573 | 48,7 | 2.960 | 49,4 |
| Zehaztu gabeak | 35 | 3,0 | - | - |
| Guztira | 1.177 | 100 | 5.986 | 100 |

Iturria: Siadeco 2018 eta Eustat 2018

Adinari dagokionez, alde nabarmenik ez dago Eustat-ek Orioko biztanleriaren adin-tarteei buruz ematen dituen ehunekoen eta inkestatik ateratakoen artean. Gazte gehiago dago inkestako laginean, baina aldea ez da emaitzak haztatu behar izateko modukoa.

Nabarmentzekoa da, Orioko biztanlerian, 60 urtetik gorakoak ez direla 20% iristen. Laurdena gaintzen dute, aldiz, 25 urtetik beherakoek.

2. Taula
Inkestaren eta unibertsoaren arteko alderaketa, adinaren arabera

| Adin-tartea | Inkesta | | Biztanleria | |
|----------------|--------------|------------|--------------|------------|
| | Kopurua | % | Kopurua | % |
| 1-5 urte | 106 | 9,0 | 316 | 5,3 |
| 6-16 urte | 195 | 16,6 | 849 | 14,2 |
| 17-25 urte | 86 | 7,3 | 459 | 7,7 |
| 26-40 urte | 246 | 20,9 | 1.104 | 18,4 |
| 41-50 urte | 192 | 16,3 | 1.125 | 18,8 |
| 51-60 urte | 137 | 11,6 | 868 | 14,5 |
| 61-70 urte | 90 | 7,6 | 560 | 9,4 |
| >70 urte | 121 | 10,3 | 705 | 11,8 |
| Zehaztu gabe | 4 | 0,3 | - | - |
| Guztira | 1.177 | 100 | 5.986 | 100 |

Iturria: Siadeco 2018 eta Eustat 2018

Jaiolekuari erreparatuta, oso antzekoak dira inkestatik ateratako ehunekoak eta Eustat-ek Orioko biztanleriari buruz ematen dituenak. **Inkesta erantzun dutenen %79 da Gipuzkoan jaioa**, Orion edo lurraldeko beste udalerrri batean; **%3,5 EAEko beste lurralde batean edo Nafarroan jaioa**, **%6,5 Espainiako estatuko beste lurralde batean** (Eustat-ek Nafarroa ere kontuan hartzen du), eta **%10,4 beste herrialde batean jaioa**.

3. Taula
Inkestaren eta unibertsoaren arteko alderaketa, jaiolekuaren arabera

| Jaiolekua | Inkesta | | Biztanleria | |
|--------------------------------------|--------------|------------|--------------|------------|
| | Kopurua | % | Kopurua | % |
| Orio | 643 | 54,6 | - | - |
| Gipuzkoako beste udalerrri bat | 289 | 24,6 | - | - |
| Gipuzkoa | 932 | 79,2 | 4.748 | 79,3 |
| EAE (eta inkestan, Nafarroa ere bai) | 41 | 3,5 | 126 | 2,1 |
| Espainiako estatua | 76 | 6,5 | 524 | 8,8 |
| Beste herrialde bat | 122 | 10,4 | 588 | 9,8 |
| Zehaztu gabe | 6 | 0,5 | - | - |
| Guztira | 1.177 | 100 | 5.986 | 100 |

Iturria: Siadeco 2018 eta Eustat 2018

02_2

Hizkuntza, zintzotasuna eta kalitatea

Inkesta betetzeko **elkarrizketa gehienak euskaraz izan dira (%60,1)**, %32,1 gaztelaniaz eta %3,6 elebitan. Eustat-en arabera, Orioko biztanleen %76 da euskara ulertzeko eta hitz egiteko gai. Euskararen kaleko erabilera, Orioko Udalaren 2017ko neurketaren arabera, %60koa da.

4. Taula
Inkestako elkarrizketen hizkuntza

| | Kopurua | % |
|----------------|------------|--------------|
| Euskara | 247 | 60,1 |
| Gaztelera | 132 | 32,1 |
| Ele bitan | 15 | 3,6 |
| Zehaztu gabe | 17 | 4,1 |
| Guztira | 411 | 100,0 |

Iturria: Siadeco 2018 eta Eustat 2018

Inkesta aurrera eraman duten elkarrizketagileek bina galdera erantzun dute, elkarrizketa bakoitzaren inguruan, elkarrizketatuaren zintzotasuna eta jasotako erantzunen kalitatea baloratu. **1etik 5erako eskala batean, elkarrizketatuaren zintzotasunak 4,9ko puntuazioa lortu du, batez beste. Erantzunen kalitateak, aldiz, 4,4koa.**

5. Taula
Elkarrizketatuen zintzotasuna eta erantzunen kalitatea

| | Elkarrizketatuaren zintzotasuna | | Erantzunen kalitatea | |
|--------------------|---------------------------------|--------------|----------------------|--------------|
| | Kopurua | % | Kopurua | % |
| 1 | - | - | - | - |
| 2 | 2 | 0,5 | 17 | 4,1 |
| 3 | 2 | 0,5 | 41 | 10,0 |
| 4 | 17 | 4,1 | 97 | 23,6 |
| 5 | 372 | 90,5 | 236 | 57,4 |
| Zehaztu gabe | 18 | 4,4 | 20 | 4,9 |
| Guztira | 411 | 100,0 | 411 | 100,0 |
| Batez beste | 4,93 | | 4,41 | |

Iturria: Siadeco 2018

02_3

Atal kualitatiboa

Informazio kuantitatiboa biltzeko inkestaz gainera, **metodologia kualitatiboa ere erabili da, ikuspegi osagarri bat eskaintzeko helburuarekin**. Horretarako, Orioko Udalarekin elkarlanean, zortzi eragile ordezkatzeko dituzten informatzaile kualifikatuak identifikatu dira, elkarriketen bidez, pobrezia, desberdintasun eta gizarte bazterketa egoeren inguruko zenbait xehetasun eta hausnarketa jasotzeko. 2018 amaieran eta 2019 hasieran egin dira elkarriketak. Ondorengo erakunde eta eragileek emandako informazioa biltzen du atal kualitatiboak:

- 1 Orioko Udaleko Gizarte Zerbitzuak
- 2 Cáritas
- 3 Eguneko Zentroa
- 4 Zaharren Babeslekua
- 5 Haurreskola
- 6 San Nicolas haurtzaindegia
- 7 Zaragueta Herri Eskola
- 8 Orioko Ikastola

Elkarriketatuaren eta eragilearen arabera egokitutako gidoia erabili da elkarriketetarako. Elkarriketa gehienak grabatu egin dira, ondoren transkripzioa egiteko. Gainerakoetan oharrak hartu dira. Edonola ere, elkarriketak hasi aurretik, elkarriketatu guztiei datuak konfidentzialak direla azaldu zaie, eta ikerlariek bakarrik entzungo zituztela elkarriketen grabazioak.

Konfidentzialtasun hori bermatze aldera, hain zuzen, atal kualitatiboan ez da aipatzen aipu bakoitza nori dagokion. Txostenean elkarriketatuek emandako informazioa laburtuta ematen da, atal bakoitzean edukien nondik norako nagusiak jasoaz eta elkarriketatuek egindako zenbait adierazpen tartekatuz.

03

Orioko egitura
soziodemografiko
eta
sozioekonomikoa




Zeharkako informazio-iturrien bidez eskuratutako zenbait datu soziodemografiko eta sozioekonomiko daude atal honetan bilduta. Inkestaren emaitza zuzenak aztertu aurretik, gaiarekin lotutako ikuspegi zabal bat eskaintzen dute, Orioko errealitatea testuinguruan kokatzeko. Izan ere, Orio udalerrinari dagozkion datuez gainera, Urola Kosta eskualdekoak, Gipuzkoa lurraldekoak eta Euskal Autonomia Erkidegokoak ere ematen dira, alderagarriak izan daitezzen.

03_1

Biztanleria: adina eta jatorria

5.986 biztanle ditu Oriok, Eustat-en 2018ko datuen arabera. **Azken hamarkadako hazkundera nabarmena izan da, 1.000 biztanle gutxiago baitzituen udalerriak 2008an.** 2009tik 2014ra, bost urteko epean, 700 biztanleko hazkundera jasan zuen Oriok.

1. Grafikoa Biztanleriaren bilakaera




Iturria: Eustat 2018, Siadecok landua

Orioko biztanleria-piramidea aztertuta agerian gelditzen dira udalerrriaren zenbait berezitasun. Zahartze prozesua orokorra da, bizi-itxaropena luzatzearen eta azken urteotako jaiotze-tasa baxuen eraginez. Alabaina, **Orioko piramidearen behealdean hazkundera izan da azken urteetan, 5 eta 10 urte artekoen tartearen zabalerak adierazten duen moduan.**

2. Grafikoa

Orioko biztanleria-piramidea 2018




Iturria: INE 2018, Siadecok landua

Adin-tarte nagusien bilakaerari begiratuta, antzematen da **0-19 urte artekoen tartea hazi dela gehien Orion, azken hamarkadan**. 20-64koenak, aldiz, beheranzko joera darama.

3. Grafikoa

Orioko biztanleriaren bilakaera, adin-tarteen arabera (%)



Iturria: Eustat 2018, Siadecok landua

Inguruko lurralde-eremuekin alderatuta, azpimarratzekoa da **65 urtetik gorakoen ehunekoa Gipuzkoakoa eta EAEkoa baino sei puntu baxuagoa dela Orion**. 0-19 urte artekoena, aldiz, %23koa da, Gipuzkoakoa eta EAEkoa baino lau eta bost puntu altuagoa, hurrenez hurren. Urola Kosta eskualdeko datuekin antza handiagoa du Orioko errealitateak. Hala ere, eskualdekoa baino are biztanleria gazteagoa du Oriok.

6. Taula
Biztanleria, adin-tarte nagusien arabera (%)

| | Orio | Urola Kosta | Gipuzkoa | EAE |
|---------|------|-------------|----------|-----|
| 0-19 | 23 | 22 | 19 | 18 |
| 20-64 | 61 | 59 | 59 | 60 |
| >=65 | 16 | 19 | 22 | 22 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 |

Iturria: Eustat 2018

03_1.1 Biztanleriaren jatorria

Orioko biztanleen artean **%9,8 da estatutik kanpo, atzerriko herrialdeetan jaiotakoa**. Gipuzkoako eta EAEko ehunekoetatik gertu dago datua, baina gainetik. Urola Kosta eskualdekoa baino puntu eta erdi altuagoa da ehuneko hori. Gipuzkoako eta EAEko datuekin alderatuta, Urola Kostan eta Orion nabarmen **baxuagoa da estatuko beste lurraldeetan jaiotakoen ehunekoa, eta altuagoa, berriz, Gipuzkoan bertan jaiotakoena**.

7. Taula
Biztanleria, jatorriaren arabera (%)


| | Orio | Urola Kosta | Gipuzkoa | EAE |
|---------------------------|-------|-------------|----------|-------|
| Lurraldea | 79,3 | 80,4 | 71,7 | - |
| EAE (Gainerakoak) | 2,2 | 2,8 | 3,1 | - |
| Estatuko beste lurraldeak | 8,7 | 8,5 | 15,6 | 18,5 |
| Atzerria | 9,8 | 8,3 | 9,6 | 9,5 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Iturria: Eustat 2018

Orion, beraz, **atzeritarren ehunekoa ez da inguruko lurralde-eremuetakoa baino askoz altuagoa**. Nolanahi ere, **fenomeno berri samarra dela kontuan hartu beharra dago**, duela hamabost urte, %2,3koa baitzen atzerrian jaiotakoen ehunekoa Orion (%3koa Gipuzkoan eta %3,1koa EAEn).

4. Grafikoa

Atzerrian jaiotakoaren bilakaera, biztanleria guztiarekiko



Iturria: Eustat 2018, Siadecok landua

Orion erroldatuta dauden eta jatorria atzerrian duten biztanleen artean, **marokoarren eta senegaldarren kolektiboak dira ugarienak**, INEren 2018ko datuen arabera, eta hala zen duela hamar urte ere. Errumaniarren eta argentinarren ehunekoek bere horretan diraute, eta **pakistandarrenak hazkunde nabarmena** eduki du azkenaldian.

8. Taula
Orion bizi den biztanleria atzerritarren bilakaera (%)


| | 2008 | | 2018 | |
|------------------------|------------|--------------|------------|--------------|
| | Kop | % | Kop | % |
| Maroko | 27 | 10,2 | 56 | 9,5 |
| Senegal | 18 | 6,8 | 55 | 9,4 |
| Pakistan | 7 | 2,6 | 48 | 8,2 |
| Errumania | 18 | 6,8 | 37 | 6,3 |
| Argentina | 9 | 3,4 | 20 | 3,4 |
| Brasil | 12 | 4,5 | 15 | 2,6 |
| Aljeria | 4 | 1,5 | 14 | 2,4 |
| Ukrainia | 13 | 4,9 | 9 | 1,5 |
| Beste herrialde batzuk | 158 | 59,4 | 334 | 56,7 |
| Guztira | 266 | 100,0 | 588 | 100,0 |

Iturria: INE 2018

Azken urteetan jaso dituen etorkinez gainera, Gipuzkoako beste udalerrietan jaiotako enhuneko handia da Orioren ezugarri bereizgarrietako bat. 2009-2014 urteen artean Orioko biztanleriak jasandako hazkunde nabarmena xeheago aztertuta, urte haietan jasotako immigrazioa eta barne migrazioak alderatuta, agerian gelditzen da azken horiek eragindako hazkundea izan zela, neurri handi batean.

5. Grafikoa

Immigrazioen eta barne migrazioen bilakaera (%)



Iturria: Eustat 2017, Siadecok landua

03_1.2 Biztanleria adindua eta mendekotasun egoerak

Orioko biztanleria-piramidea eta adin-tarte nagusien araberako eboluzioa aztertuta, agerian gelditzen da azken urteetan adinekoen kolektiboak ez duela hazkunde handirik jasan. Ez, behintzat, beste lurralde-eremuetakoaren neurrikoa. Dena den, multzo hori xeheago aztertuta, azpimarratzeko modukoa da **helduenen artean eman dela hazkunderik handiena, 80 eta 84 urtekoen eta 85 urtetik gorako multzoetan**, hain zuzen ere.

9. Taula
Orioko 65 urte eta gehiagoko biztanleriaren bilakaera (% biztanleria guztiarekiko)

| | 2003 | | | 2018 | | |
|--------------------------|---------|--------------|-------------|---------|--------------|-------------|
| | Guztira | Emakumezkoak | Gizonezkoak | Guztira | Emakumezkoak | Gizonezkoak |
| 65-69 | 4,6 | 4,9 | 4,4 | 4,5 | 4,6 | 4,4 |
| 70-74 | 4 | 4,1 | 3,9 | 4,3 | 4,2 | 4,4 |
| 75-79 | 3,3 | 4 | 2,7 | 2,5 | 2,6 | 2,3 |
| 80-84 | 1,9 | 2,2 | 1,5 | 2,6 | 3,1 | 2,2 |
| 85 baino gehiago | 1,4 | 1,9 | 0,9 | 2,4 | 3,1 | 1,6 |
| 65 baino gehiago guztira | 15,1 | 17 | 13,4 | 16,2 | 17,6 | 14,9 |

Iturria: INE 2018

Orioko biztanleriak adinari dagokionez dituen ezaugarriek lotura estua dute mendekotasun fisikoari buruzko datuekin. **Izan ere, Orioko biztanleen %3,1ek dauka aitortua mendekotasun graduren bat, Urola Kostan (%3,9) eta Gipuzkoan (%4) baino gutxiago.** 65 urtetik gorakoen mendekotasun-tasan, berriz, Oriokoak Gipuzkoako ehunekoa gainditzen du. Deigarria da, gainera, **65 urtetik gorakoen artean, gradu larriena, III.gradua aitortua dutenen ehunekoa bi puntu eta erdi altuagoa dela Orion, Gipuzkoan baino.**

Sexuari dagokionez, oro har, **gehiago dira mendekotasuna duten emakumezkoak, haien bizi-itxaropena ere altuagoa delako.**

10. Taula
Mendekotasun-tasa (%)

| | Orio | Urola Kosta | Gipuzkoa |
|---------------|------|-------------|----------|
| I gradua | 1,31 | 1,6 | 1,66 |
| II gradua | 0,97 | 1,36 | 1,35 |
| III gradua | 0,84 | 0,9 | 1 |
| I-III graduak | 3,1 | 3,9 | 4 |

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia-Gizarte Politikako Departamentua, 2017

11. Taula
Mendekotasun-tasa 65 urtetik gorakoen artean (%)

| | Orio | Urola Kosta | Gipuzkoa |
|---------------|------|-------------|----------|
| I gradua | 14,6 | 17,6 | 15 |
| II gradua | 13 | 15,8 | 13 |
| III gradua | 13,5 | 11,4 | 11 |
| I-III graduak | 41,1 | 44,8 | 39 |

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia-Gizarte Politikako Departamentua, 2017

Adinekoen kolektiboarekin lotuta, etxez-etxeko laguntza zerbitzuaren erabilera ere adierazgarria da. **Orion, Urola Kosta eskualdean eta Gipuzkoan baino baxuagoa da 65 urtetik gorako 1.000 biztanleko etxez-etxeko laguntza zerbitzua jasotzen dutenen kopurua.** Bestalde, Orion, zerbitzua jasotzen duten guztiak emakumezkoak dira.

12. Taula
Etxez-etxeko laguntza zerbitzua jasotzen duten 65 urtetik gorako biztanleak (%)

| | Orio | Urola Kosta | Gipuzkoa |
|--------------|------|-------------|----------|
| Gizonezkoak | 0 | 1,2 | 1,1 |
| Emakumezkoak | 2 | 2,5 | 2,6 |
| Guztira | 1 | 2 | 2 |

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia-Gizarte Politikako Departamentua, 2017

Etxez-etxeko laguntza zerbitzuaren alternatiba edo osagarri izan daiteke, hain zuzen, **Eguneko Zentroa**. Zerbitzu horretan, **Oriok eskualdeko eta lurraldeko eskaintza gainditzen du**, 65 urtetik gorako 100 biztanleko plaza kopuruari erreparatuta.

13. Taula
Eguneko zentroko plazak 65 urtetik gorako 100 biztanleko

| | |
|-------------|-----|
| Orio | 2,9 |
| Urola Kosta | 1,4 |
| Gipuzkoa | 1,1 |

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia-Gizarte Politikako Departamentua, 2017

03_2

Langabeziaren eragina Orion

%7,3koa da langabezia-tasa Orion, Lanbideren 2019ko azken datuaren arabera. **Urola Kosta eskualdekoa baino altuagoa, baina Gipuzkoakoa eta EAEmakoa baino baxuagoa:** bi eta lau puntu, hurrenez hurren. **Emakumeen artean altuagoa da langabezia-tasa,** kasu guztietan. Orion, %9,1era heltzen da, emakumeen artean.

14. Taula
Langabezia-tasa (%)

| | Orio | Urola Kosta | Gipuzkoa | EAE |
|-------------|------|-------------|----------|------|
| Guztira | 7,3 | 7,6 | 9,2 | 11,2 |
| Gizonezkoak | 5,7 | 6,4 | 7,6 | 9,4 |
| Emakumezkoa | 9,1 | 8,9 | 11,0 | 13,1 |


Iturria: Lanbide, 2019

Langabezia-tasa baxua du Oriok, gaur egun, Gipuzkoakoarekin eta EAEmakorekin alderatuta. Hala ere, **kontuan hartu beharra dago, duela hamabi urte, Orioko langabezia-tasa ez zela %4ra ere iristen.** Eboluzioari erreparatuta, krisi ekonomikoaren ondorioak antzematen dira, %9,3raino igo baitzen langabezia-tasa, 2014 urtean. 2016an %6,7ra jaitsi zen langabezia-tasa, baina puntu bat baino gehiago hazi da jada.

Iraupen luzeko langabeziari dagokionez, %1,3koa besterik ez zen krisiaren aurretik, eta %3,6ra iritsi zen 2013an. Puntu bat baxuagoa da gaur egun.

6. Grafikoa

Langabezia-tasaren bilakaera Orion (%)



Iturria: Lanbide, 2017

Langabezian dagoen biztanleria sakonago aztertuta, **emakumezkoen ehunekoa baxuagoa da Orion**, Urola Kostan eta Gipuzkoan baino. Adinari dagokionez, **Orioko langabeen artean eskualdekoen eta lurraldekoen artean baino gehiago dira 25 urtetik beherakoak, eta gutxiago 45 urtetik gorakoak**. Azken adin-tarte horretako langabeen ehunekoa Gipuzkoakoa baino ia hamar puntu baxuagoa da Orion.

15. Taula

Emakumeak, 25 urtetik beherakoak eta 45 urtetik gorakoak, langabezian dagoen biztanleriarekiko (%)

| | Orión | Urola Kosta | Gipuzkoa | EAE |
|---------------|-------|-------------|----------|------|
| Emakumeak | 52 | 57,2 | 56,7 | 52 |
| < 25 urtekoak | 10 | 7,4 | 7,5 | 10 |
| > 45 urtekoak | 38,3 | 44,8 | 47,9 | 38,3 |

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia-Gizarte Politikako Departamentua, 2017

Sexuaren eta adin-tarteen arabera langabezia datuen azterketan sakonduta, nabarmentzeko modukoa da **25 urtetik beherako gizonezkoen ehunekoa altuagoa dela Orion**, Urola Kostan eta Gipuzkoan baino: bost eta lau puntu gehiago, hurrenez hurren. 25-44 urte arteko gizonezkoen ehunekoa ere nabarmen altuagoa da Orion; ia hamalau puntu ateratzen dizkio Gipuzkoako datuari. **45 urtetik gorako gizonezkoetan alderantziz gertatzen da, Orion nabarmen baxuagoa da ehunekoa**. Emakumeetan ere, azken adin-tarte horretan antzematen da alderik handiena. Gipuzkoakoa baino ia zazpi puntu baxuagoa da ehunekoa Orion.

16. Taula
Langabeen adin-tarteak, sexuaren arabera,
langabezian dauden gizon / emakumeekiko (%)

| | | Orio | Urola Kosta | Gipuzkoa |
|--------------|------------------|------|-------------|----------|
| Emakumezkoak | < 25 urtekoak | 7,9 | 7,5 | 6,8 |
| | 25 - 44 urtekoak | 50,7 | 47,9 | 45,1 |
| | > 45 urtekoak | 41,4 | 44,6 | 48,1 |
| Gizonezkoak | < 25 urtekoak | 12,4 | 7,4 | 8,5 |
| | 25 - 44 urtekoak | 52,7 | 47,5 | 43,9 |
| | > 45 urtekoak | 34,9 | 45,1 | 47,6 |

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia-Gizarte Politikako Departamentua, 2017

03_3

Enplegua: sektoreen eta lantokiaren arabera

Biztanleria aktiboaren eta biztanleria landunaren ehunekoak altuagoak dira Orion, Urola Kosta eskualdean, Gipuzkoa lurraldean eta EAEn baino. Jarduera eta okupazio tasek adierazten dute hori. Izan ere, Oriok ditu lau lurralde-eremuen arteko tasarik altuenak, bai emakumeen artean, baita gizonezkoen artean ere.

17. Taula
Jarduera-tasa (%)

| | Orio | Urola Kosta | Gipuzkoa | EAE |
|--------------|------|-------------|----------|------|
| Guztira | 51,2 | 48,6 | 48,2 | 48,7 |
| Gizonezkoak | 54,1 | 51,9 | 51,4 | 52,1 |
| Emakumezkoak | 48,4 | 45,2 | 54,2 | 45,5 |

Iturria: Eustat, 2016

18. Taula
Okupazio-tasa (%)


| | Orio | Urola Kosta | Gipuzkoa | EAE |
|--------------|------|-------------|----------|------|
| Guztira | 54,7 | 51,2 | 49,6 | 48,5 |
| Gizonezkoak | 57,8 | 56 | 54,1 | 52,9 |
| Emakumezkoak | 51,5 | 46 | 45,4 | 44,4 |

Iturria: Eustat, 2016

Orioko biztanleria okupatua sektorearen arabera aztertuta, azpimarratzekoa da hogeituroko epean arrantzak eta industriak jasan duten beherakada. Zehatzago: ia zortzi puntukoa industriak, eta hamabikoa arrantzak. Eraikuntzak ia bere horretan jarraitzen du, eta zerbitzuen sektoreak izan du hazkunderik handiena, ia hogeituroko.

7. Grafikoa

Orioko 16 urte edo gehiagoko biztanleria okupatua, sektorearen arabera (%)




Iturria: Eustat, 2016

Azpimarratu behar da, gainera, **Orioko biztanleriaren %22,5ek soilik lan egiten duela udalerrian bertan**. Ia %80k Oriotik kanpo lan egiten du, beraz. Ia hiru laurdenek Gipuzkoako beste udalerrri batean.

8. Grafikoa

Orioko 16 urte edo gehiagoko biztanleria okupatua, lantokiaren arabera (%)



Iturria: Eustat, 2018

03_4

Batez besteko errenta pertsonala eta familiena

Ongizatea ekonomiaz harago doan arren, pobreziaren eta gizarte bazterketaren inguruko ikerketa batean halaberrez aztertu beharreko adierazlea da errenta. Eustat-en 2016ko datuen arabera, **21.640 eurokoa da Orioko biztanleen batez besteko errenta pertsonal osoa. Urola Kostakoaren parekoa, Gipuzkoakoa baino baxuagoa eta EAEkoa baino altuagoa.**

Emakumeen artean 15.962 eurokoa da batez besteko errenta pertsonal osoa Orion, Urola Kostakoaren antzekoa, EAEkoa baino ia 400 euro altuagoa, baina Gipuzkoakoa baino ia 600 euro baxuagoa.

19. Taula
Batez besteko errenta pertsonal osoa (€)

| | Orio | Urola Kosta | Gipuzkoa | EAE |
|--------------|--------|-------------|----------|--------|
| Guztira | 21.640 | 21.666 | 21.714 | 20.443 |
| Gizonezkoak | 27.200 | 27.400 | 27.202 | 25.696 |
| Emakumezkoak | 15.962 | 15.978 | 16.556 | 15.578 |

Iturria: Eustat, 2016

Familien batez-besteko errentari dagokionez, 45.492 eurokoa da Orion, EAEkoa eta Gipuzkoakoa baino altuagoa. Oriokoa baino are altuagoa da familien batez besteko errenta, dena den, Urola Kosta eskualdean.

Diru-sarrera nagusiak emakume batek dituen familietan, 40.261 eurora jaisten da batez besteko errenta osoa Orion. Hala ere, **diru-sarrera nagusiak gizon batek edo emakume batek edukitzearen arteko diferentzia txikiagoa da bai Orion baita Urola Kostan ere, Gipuzkoan eta EAEn baino.**

20. Taula
Familien batez besteko errenta pertsonal osoa (€)


| | Orio | Urola Kosta | Gipuzkoa | EAE |
|--------------|--------|-------------|----------|--------|
| Guztira | 45.492 | 45.805 | 44.855 | 42.464 |
| Gizonezkoak | 48.747 | 49.309 | 49.421 | 46.709 |
| Emakumezkoak | 40.261 | 40.701 | 38.692 | 36.819 |

Iturria: Eustat, 2016

Hamabost urteko epea kontuan hartuta, batez besteko errentaren bilakaera altuagoa izan da Orion, Urola Kostan, Gipuzkoan eta EAEn baino. Bai batez besteko errenta pertsonalean, baita familien batez besteko errentan ere. 16.753 eurotik 21.640ra igo da batez besteko errenta pertsonala, eta 37.610etik 45.492ra familien batez besteko errenta.


9. Grafikoa

Batez besteko errenta pertsonalaren bilakaera (€)



Iturria: Eustat 2016

10. Grafikoa
Familien batez besteko errentaren bilakaera (€)



Iturria: Eustat 2016

03_5

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE)

Prestazio sozialen artean, erreferentzia nagusia da Lanbidek kudeatzen duen Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta. Gaur egun, **1.000 biztanleko 19k jasotzen dute Orion, Urola Kostan eta Gipuzkoan baino gehiago. DBE jasotzen duten emakumeak gizonezkoak baino gehiago dira** hiru lurralde-eremuetan.

DBEren titularrak ezaugarri ezberdinen arabera aztertzeak bestelako informazio aberasgarria eman dezake, edonola ere. Esate baterako, DBEren titular guztiek jasotzen dutela Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO), hiru lurralde-eremuetan.

Azpimarratzeko modukoa da, era berean, **Orion DBE jasotzen duten pentsiodunak gutxiago direla Urola Kostan eta Gipuzkoan baino**. Gipuzkoakoa baino ia bi puntu baxuagoa da Orioko datua. DBE jasotzen duten atzerritarrei dagokienez, aldiz, Urola Kostakoa eta Gipuzkoakoa baino hiru puntu altuagoa da Orioko datua.

21. Taula
Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE)
jasotzen duten biztanleak (%)

| | Orio | Urola Kosta | Gipuzkoa |
|--------------|------|-------------|----------|
| Guztira | 19 | 15 | 18 |
| Emakumezkoak | 22,3 | 16,8 | 20,3 |
| Gizonezkoak | 15,7 | 13,3 | 15,7 |

Iturria: Lanbide, 2018


22. Taula
Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) jasotzen duten biztanleak,
zenbait aldagairen arabera (%)

| | Orio | Urola Kosta | Gipuzkoa |
|-------------------------------------------------------------------|------|-------------|----------|
| EPO jasotzen duten DBEren titularrak | 19 | 15 | 18 |
| Familia gurasobakarren osagarria jasotzen duten DBEren titularrak | 3,7 | 2,1 | 3 |
| DBEren titularrak diren pentsiodunak | 3,7 | 4 | 5,3 |
| DBEren titularrak diren atzerritarrak | 8,2 | 5,4 | 5,3 |

Iturria: Lanbide, 2018

Orion DBE jasotzen duten biztanleen bilakaera aztertuta, **agerian gelditzen da azken hamarkadako fenomeno del**, 2008an 1.000 biztanleko hiruk besterik ez baitzuten DBE jasotzen. DBE jasotzen duten biztanleen gorakadarik handiena, hain zuzen, bat dator 2009-2014 epeko biztanleriaren hazkundearekin.

11. Grafikoa
DBE jasotzen duten biztanleen bilakaera Orion (%)



Iturria: Lanbide, 2018

04

Adierazle
nagusiak,
alderatuta



Atal honen helburua da Oriko pobrezia, desberdintasun eta gizarte bazterketa egoeren inguruko ikuspegi orokorra ematea, **inkestako emaitzetatik abiatuta, gaiaren inguruan Europa mailan erabili ohi diren adierazle nagusiak kalkulatu eta alderatu**. Alde horretatik, erreferentzia nagusiak ondorengoak dira: Eurostat-en Errentari eta Bizi Baldintzei buruzko Europar Batasuneko Estatistikak (EU-SILC), INE Estatistika Institutu Nazionalaren Bizi Baldintzei Buruzko Inkesta (Encuesta de Condiciones de Vida-ECV), Eusko Jaurlaritzaren Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta (PGDI) eta FOESSA Fundazioak gizarte bazterketa aztertzeke garatutako adierazleak. Gipuzkoari dagozkion datuak Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko azken inkestakoak dira (2014).

04_1

Pobrezia eta gabezia egoerak

Alderdi monetarioaren eta materialaren ikuspuntua biltzen du puntu honek, horretarako, EU-SILC metodologiatik abiatuta. Eurostat-ek lantzen ditu Errentari eta Bizi Baldintzei buruzko Europar Batasunaren estatistikak (Statistics on Income and Living Conditions), 2004 urteaz geroztik.

04_1.1 Pobrezia erlatiboa eta pobrezia larria

Pobrezia erlatiboaren tasa Europar Batasunean pobrezia aztertzeke adierazle ofiziala izan da urtetan. Diru-sarrera txikien edo pobrezia arriskuaren tasa gisa ere ezaguna da. Neurri objektiboa da eta izaera erlatiboa du. **Pobrezia erlatiboaren tasan, baliabide maila jakin batekin lotzen da pobrezia.**

Pobrezia erlatiboaren atalasa kalkulatu da lehenengo: **kontsumo-unitateko errenta baliokidearen medianaren %60**. Atalasa baino baxuagoa den errenta garbi baliokidea duten pertsona edo etxeen proportzioa da pobrezia erlatiboaren tasa. **Pobrezia larria, berriz, errenta baliokidearen medianaren %40an finkatutako atalasetik abiatuta kalkulatu da.**

Metodologiaren ikuspegitik, etxeko errenta errenta pertsonal bihurtzerakoan, kontsumo-unitate baliokideak lortzeko xedearekin, etxeko kide bakoitzari pisu desberdina esleitzen dion baliokidetasun eskala bat erabiltzen da. Horrela, etxe batean kontsumo-unitateen kopurua kide bakoitzari esleitzen zaion pisuaren batura gisa kalkulatzen da: 1, etxeko lehenengo pertsona helduari; 0,5 gainerako pertsona helduei eta 0,3 14 urtetik beherako pertsoneri.

Ondorengo taulan zehaztuta datoz Orion pobrezia arriskua eta pobrezia maila larria mugatzen duten atalasa. **Adierazle honen arabera, kontsideratzen da kopuru horietatik behera kokatzen diren familiak daudela pobrezia arriskuan edo pobrezia maila larrian.** Familia-motaren arabera, neurriak ezberdinak dira.

23. Taula
Pobrezia erlatiboaren eta pobrezia larriaren atalasa Orion

| | Pobrezia erlatiboa (€) | Pobrezia larria (€) |
|-------------------------------|------------------------|---------------------|
| Heldu 1 | 875,10 | 583,4 |
| 2 heldu | 1.312,65 | 875,10 |
| 2 heldu eta 14 urtez azpiko 1 | 1.575,18 | 1.050,12 |
| 2 heldu eta 14 urtez azpiko 2 | 1.837,71 | 1.225,14 |

Iturria: Siadeco, 2018

Inguruko lurralde-eremuekin alderatuta, pobrezia erlatiboaren edo pobrezia arriskuaren atalasa Gipuzkoakoaren, EAEkoaren eta Espainiakoaren gaineratik kokatzen da Orion. Espainiarekiko aldea handia da; txikiagoa EAerekiko eta Gipuzkoarekiko. Lurraldearekin alderatuta, pobrezia atalasa 33 euro inguru gorago kokatzen da Orion, pertsona heldu bateko etxebizitzetan. Pobrezia maila larriari dagokionez ere, Gipuzkoan eta EAEn baino gorago kokatzen da muga Orion.

24. Taula
Pobrezia erlatiboaren atalasa

| | Orio | Gipuzkoa (2014) | EAE (2016) | Espainia (2017) |
|-------------------------------|----------|-----------------|------------|-----------------|
| Heldu 1 | 875,10 | 852,4 | 858 | 710,16 |
| 2 heldu eta 14 urtez azpiko 2 | 1.837,71 | 1790 | 1801,80 | 1491,35 |

Iturria: Siadeco 2018, GFA-Gizarte Politikako Departamentua 2014, EJ-Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila 2016, INE 2017

25. Taula
Pobrezia larriaren atalasa

| | Orio | Gipuzkoa (2014) | EAE (2016) |
|-------------------------------|----------|--------------------|---------------|
| Heldu 1 | 583,4 | 568,3 | 572 |
| 2 heldu eta 14 urtez azpiko 2 | 1.225,14 | 1.193,3 | 1.201,20 |

Iturria: Siadeco 2018, GFA-Gizarte Politikako Departamentua 2014, EJ-Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila 2016

Pobrezia erlatiboaren eta pobrezia maila larriaren mugak irudikatzen dituzten atalasa horietan oinarrituta, **Orioko biztanleen %20,6 bizi da pobrezia atalasetik behera, %9,3 pobrezia erlatiboan eta %11,3 pobrezia larrian.** Orioko biztanleriara estiratuta, 550 oriotar inguru bizi daitezke pobrezia erlatiboan, eta 675 inguru, pobrezia larrian.


26. Taula
Pobrezia erlatiboan eta larrian dauden pertsonak eta etxeak

| | Pertsonak | | Etxeak | |
|---------------------|-------------|--------------|-------------|------------|
| | Tasa (%) | Kopurua | Tasa (%) | Kopurua |
| Pobrezia erlatiboan | 9,3 | 559 | 9,7 | 287 |
| Pobrezia larrian | 11,3 | 676 | 9,5 | 281 |
| Guztira | 20,6 | 1.236 | 19,2 | 569 |

Iturria: Siadeco 2018

Beste lurralde eremuekin alderatuta, pobrezia atalasetik behera bizi den biztanleriaren ehunekoa Gipuzkoakoaren eta EAEkoaren antzekoa da Orioko, eta Espainiako baino nabarmen baxuagoa.

12. Grafikoa
Pobrezia atalasetik bizi den biztanleria (%)




Iturria: Siadeco 2018, GFA-Gizarte Politikako Departamentua 2014, EJ-Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila 2016, INE 2017

Pobrezia erlatiboari dagokionez, Orioko ehunekoa Gipuzkoakoa, EAEkoa eta Espainiakoa baino baxuagoa da. **Aitzitik, pobrezia larriaren kasuan, Gipuzkoako eta EAEko datuaren bikoitza gainditzen du Oriokoak.**

Espainiako datuari dagokionez, INEren Bizi Baldintzei buruzko Inkestak ez du pobrezia larriaren inguruko daturik ematen. Hortaz, Espainia mailako erreferentzia EAPN-European Anty Poverty Network Gobernu Kanpoko Erakundearen sareak 2018an emandako datua izan da (*‘El Estado de la Pobreza. España 2018 VIII Informe anual sobre el riesgo de pobreza y exclusión’*). Hori horrela izanik, **Orioko datua Espainiakoa baino ia puntu bat gorago dagoela ikus daiteke.**

13. Grafikoa Pobrezia erlatiboa eta larria (%)



Iturria: Siadeco 2018, GFA-Gizarte Politikako Departamentua 2014, EJ-Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila 2016, INE 2017, EAPN 2018

27. Taula Pobrezia erlatiboaren eta larriaren tasak (%)

| | Orio | Gipuzkoa (2014) | EAE (2016) | Espainia (2017) |
|--------------------|------|-----------------|------------|-----------------|
| Pobrezia erlatiboa | 9,3 | 15,6 | 16,4 | 21,6 |
| Pobrezia larria | 11,3 | 5,4 | 4,9 | 10,5 |

Iturria: Siadeco 2018, GFA-Gizarte Politikako Departamentua 2014, EJ-Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila 2016, INE 2017, EAPN 2018

04_1.2 Gabezia material larria

Diru-sarrerez gainera, gabezia materiala ere izan daiteke pobrezia identifikatzeko beste neurrietako bat. **Oinarrizko ondasun, ekipamendu edo zerbitzuen falta da gabezia materiala, eta ez du zertan diru-sarrera baxuekin lotuta egon.** Izan ere, diru-sarrera baxuei dagokienez pobre diren pertsona guztiek ez dute zertan bizi-baldintza materialen ikuspuntutik ere pobre izan, edo alderantziz.

EU-SILC metodologiatik abiatuta, bederatzi item kontuan hartzen dira, guztira, gabezia materiala aztertzeko. Adierazle honen arabera, **horietatik lau edo gehiago falta dituztenak gabezia material larrian bizi dira:**

- 1 Garbigailua edukitzea
- 2 Kolorezko telebista edukitzea
- 3 Telefonoa edukitzea
- 4 Bi egunez behin haragia, oilaskoa edo arraina jatea (edo baliokide begetarianoak)
- 5 Neguan hotza pasatzea, tenperatura egokia mantentzeko ezintasunagatik
- 6 Auto bat edukitzea
- 7 Astebetez etxetik kanpo oporretan joatea
- 8 Hipoteka edo alokairua eta etxeko hornidura ez ordaintzea
- 9 800 euroko ustekabeko gastu bati aurre egiteko ezintasuna

Inkestako emaitzen arabera, etxebizitzaren %3,4tan dute gabezia material larria, eta biztanleriaren %4,3k jasaten du. Hortaz, Orion 75 etxebizitza inguru izan daitezke gabezia material larria dutenak.

28. Taula
Oinarrizko ondasun, ekipamendu eta zerbitzuak
falta dituzten pertsonak eta familiak Orion (%)

| | Pertsonak (%) | Familiak (%) |
|----------------|---------------|--------------|
| 0 | 74,3 | 75,4 |
| 1 | 12,5 | 12,9 |
| 2 | 4,2 | 4,6 |
| 3 | 4,7 | 3,6 |
| 4 | 2,5 | 1,9 |
| 5 | 0,7 | 0,5 |
| 6 | 1,1 | 1 |
| Guztira | 100 | 100 |

Iturria: Siadeco, 2018

Gabezia material larria duten etxebizitzaren ehunekoa inguruko lurralde-eremuetako datuekin konparatuta, **EAEkoaren parean dago Orioko gabezia material larriaren tasa, baina Espainiakoaren eta Gipuzkoakoaren azpitik.**

14. Grafikoa Gabezia material larria (%)



Iturria: Siadeco 2018, GFA-Gizarte Politikako Departamentua 2014, INE 2017

Orioko laginean gabezia material larria duten etxebizitzaren artean, denek dute garbigailua eta telefono finko edo mugikorra eta bakarrak falta du kolorezko telebista. Gainerako item-etan daude, beraz, gabeziarik handienak. **Gabezia material larria duten familia-taldeek %78k hotza pasa du azken neguan, etxebizitza tenperatura egokian mantentzeko ezintasunagatik.** Ehuneko berdinak atzerapenak izan ditu argindarra, ura gasa edo bestelako erregaien ordainketetan, edo ez ditu ordaindu.

Gabezia material larria duen familia-talde bakar batek ere ez du etxetik kanpo, urtean aste betez gutxienez, oportetean joateko aurkerarik izan. Eta familia-talde horien %64k ez du autorik, arrazoi ekonomikoengatik.

Gabezia materiala pobrezia ekonomikoaren baliokidea ez baldin bada ere, agerian gelditu da horien arteko lotura. Izan ere, **gabezia material larria duten etxebizitzaren %93k ez du 800 euroko ustekabeko gastu bati aurre egiteko gaitasunik.**

04_1.3 Pobreziaren arraila

Pobreziaren intentsitate-maila neurtzen du pobreziaren arrailak. Izan ere, oso ezberdina da pobreziaren atalasa baino apur bat baxuagoak edo askoz baxuagoak diren diru-sarrerak edukitzea.

Pobreziaren arraila edo pobreziaren intentsitateak (ingelesez, *poverty gap*), **pobreziaren atalaren eta haren azpitik dauden pertsonen kontsumo unitateko diru-sarreraren medianaren artean dagoen aldea edo distantzia azaltzen du**, atalaren ehuneko gisa irudikatuta.

Inkestako emaitzen arabera, Orion, pobreziaren atalasa 875,10 eurotan kokatzen da, eta pobreziaren atalasetik behera dagoen biztanleriaren diru-sarrera baliokidearen mediana 599,21 eurokoa da. Hortaz, pobreziaren arraila %46koa da.

29. Taula
Pobreziaren arraila Orion


| | |
|----------------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| Diru-sarrera baliokidearen mediana kontsumo unitateko | 1.458,50€ |
| Pobreziaren atalasa (medianaren %60) | 875,10€ |
| Pobreziaren atalasetik behera dagoen biztanleriaren diru sarrera baliokidearen mediana | 599,21€ |
| Pobreziaren arraila | %46 |

Iturria: Siadeco, 2018

Orioko datua **inguruko lurralde-eremuekin alderatuta, agerian gelditzen da Oriokoa Gipuzkoakoa eta Espainiakoa baino nabarmen altuagoa dela**. Gipuzkoan, Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko azken inkestaren arabera, pobreziaren arraila %19,8koa zen 2014an. Espainian, EAPNren azken txostenaren arabera, %32,4koa da arraila. EAeko Pobrezia eta Ezberdintasun Sozialei buruzko Inkestak ez du pobreziaren arrailaren inguruko daturik ematen.

Edonola ere, Gipuzkoan eta Espainian baino distantzia handiagoa dago Orion, beraz, pobrezia egoeran bizi den biztanleriaren diru-sarreraren medianatik pobreziaren atalatera. Datu horrek lotura du pobrezia larriari dagokionarekin, Orion ehuneko handiagoa baita, inguruko lurralde-eremuetan baino.

15. Grafikoa
Pobrezia arraila (%)




Iturria: Siadeco 2018, GFA-Gizarte Politikako Departamentua 2014, EAPN 2018.

04_1.4 Hilabete bukaerara iristeko norberak hautemandako zailtasuna

Aldagai subjektiboa izanik ere, pobrezia adierazle gisa erabili ohi da hilabete amaierara iristeko norberak hautemandako zailtasuna. Inkestako emaitzen arabera, Orioko etxebizitzaren %10,7 da hilabete amaierara zailtasunez edo zailtasun handiz iristen dena. Gipuzkoako, EAEko eta Espainiako ehunekoak baino baxuagoa da Oriokoa. Nolabaiteko zailtasunez iristen direla adierazi dutenei dagokienez (%20), EAEko ehunekoak gainditzen du Oriokoa, baina Gipuzkoakoaren eta Espainiakoaren azpitik dago.

16. Grafikoa
Hilabete amaierara heltzeko zailtasuna (%)



Iturria: Siadeco 2018, GFA-Gizarte Politikako Departamentua 2014, INE 2017.

Pobrezia erlatiboan eta pobrezia larrian dauden familia-taldeekin gurutzatuta

Elkarrizketatuen pertzepzioek ez dute diru-sarrerekin lotutako datu objektiboek irudikatutako egoera guztiz islatu. Bi ikuspegi horiek alderatzeko, EU-SILC metodologiaren arabera pobrezia erlatiboan edo pobrezia larrian daudenen hilabete amaierara heltzeko zein zailtasun duten azaltzen du ondorengo taulak.

Pobrezia erlatiboan bizi direnen artean, erdia pasatxo da nolabaiteko zailtasunez edo zailtasunez heltzen dena hilabete amaierara. Pobrezia larrian daudenen %20,5ek erantzun du zailtasun handiz heltzen dela hilabete amaierara, %17,9k zailtasunez eta %35,9k nolabaiteko zailtasunez. Beraz, **egoera larrian daudenen ia laurdenak, ez du hilabete amaierara heltzeko zailtasunik aitortu, eta ia %36k "nolabaiteko" zailtasuna duela adierazi du.**

30. Taula
Egungo diru-sarrerekin, nola heltzen diren hilabete amaierara (%)

| | Pobrezia erlatiboa | Pobrezia larria | Guztira |
|-------------------------|--------------------|-----------------|---------|
| Zailtasun handiz | 12,5 | 20,5 | 3,9 |
| Zailtasunez | 10 | 17,9 | 6,8 |
| Nolabaiteko zailtasunez | 42,5 | 35,9 | 20 |

Iturria: Siadeco, 2018

04_1.5 Pobrezia energetikoa, etxeen pertzepzioan oinarrituta

Adierazle honek ere izaera subjektiboa duen arren, gaur egun, Europar Batasuneko herrialdeen artean pobrezia energetikoaren irismena alderatzea ahalbidetzen duen adierazle bakarra da.

Etxeko beharrak asetzeko adinako energia-zerbitzuak ordaintzeko gai ez diren familia-taldeen inguruko informazioa ematen du. Ondorengo hiru aldagaiak kontuan hartzen dira:

- 1 Etxebizitza tenperatura egokian mantentzeko zailtasuna
- 2 Azken urtean zailtasun ekonomikoak direla medio erreziboak ordaintzerakoan atzerapenak edukitzea.
- 3 Hezetasunak etxebizitzan.

Garrantzitsua da azpimarratzea, pobrezia energetikoa diru-sarrera baxuak dituzten etxeekin lotzen bada ere, egoera horretan beste zenbait faktorek ere eragina dutela, etxebizitzaren energia-eraginkortasunak eta energiaren prezioak, besteak beste.

Inkestako emaitzen arabera, **biztanleen %23,7k eta etxebizitzaren %21,3k jasaten du pobrezia energetikoa**. Kontuan hartu beharra dago ondorengo taulan ematen diren kopuruak Orioko biztanleriara eta etxebizitza guztietara estrapolatuta daudela.

Aztertzen diren **hiru aldagaien artean, hezetasunarekin lotutakoa da balio altuena ematen duena**, alde handiarekin, gainera. Izan ere, inkestako etxebizitzaren %27,5ek du arazo hori. **Errealitate horren ondorioz ematen du Oriok horren ehuneko altua, pobrezia energetikoaren adierazlean**. Izan ere, etxebizitzaren %1,7 besterik ez da hiru arazoak dituen.

31. Taula
Orioko biztanleriaren eta etxebizitzaren pobrezia energetikoaren tasa

| | Pertsonak | Etxeak |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|----------|
| | Tasa (%) | Tasa (%) |
| Azken neguan, batzuetan behintzat etxebizitza tenperatura egokian mantentzeko ezintasuna | 6,1 | 5,4 |
| Azken 12 hilabeteetan, arrazoi ekonomikoak direla eta, argindarra, ura, gasa edo bestelako erregaiak ordaindu ezinik edo ordainketan atzerapena izan dutenak | 5,9 | 4,4 |
| Etxebizitzak itoginak ditu sabaietan, hezetasuna horretan, lurra eta zimenduetan, edo leihoetako markoak, ateak edo lurra ustelduta | 29,2 | 27,5 |
| Hiru arazoak dituztenak | 2,1 | 1,7 |
| Gutxienez arazo bat dutenak | 33,5 | 30,7 |
| Pobrezia energetikoaren adierazle sintetikoa | 23,6 | 21,35 |

Iturria: Siadeco 2018

Inguruko lurralde-eremuetan egindako azken ikerketetan ez dute etheen pertzepzioan oinarritutako pobrezia energetikoari buruzko daturik eman. Datu zaharragoak aztertuz gero, Gipuzkoan %13koa zen pobrezia energetikoaren adierazle sintetikoa 2012an, eta %20,5ekoa Espainian, 2013an.

04_2

Desberdintasuna

Gizarte desberdintasuna eta desberdintasun ekonomikoa ez dira termino baliokideak, dimentsio gehiago sartzen baitira lehenengoan. Hala ere, kontsumo gizarteetan, desberdintasun ekonomikoak eragin handia du gizarte desberdintasunean.

Horiek horrela, diru-sarreraren desberdintasunaren neurketan oso ezagunak diren bi adierazle aztertuko ditugu: Gini koefizientea eta S80/S20 erlazio edo indizea.

04_2.1 Gini koefizientea

Lurralde jakin batean diru-sarreraren edo aberastasunaren desberdintasuna zein den neurtzeko erabiltzen da. Desberdintasun-adierazle zabalduenetakoa da munduan, Eurostat-ez gainera, Munduko Bankuak ere erabiltzen baitu, besteak beste.

Koefizienteak **banatutako biztanleriaren pisu metatuaren eta eskuragarri duen errentaren pisu metatuaren arteko erlazioa adierazten du. Zero eta ehun arteko balio bat da emaitza: 0 berdintasun perfektua litzateke** (pertsonek guztiek diru-sarrera berdina dituzte), **eta 100, erabateko desberdintasuna** (pertsonek batek diru-sarrera guztiak dituzte, eta beste guztiek batere ez).

34ko Gini koefizientea eman dute inkestaren emaitzek Orion. Inguruko lurralde-eremuetako datuekin alderatuta, Espainiakoaren parekoa da Gini koefizientea Orion, EAEkoa eta Gipuzkoakoa baino altuagoa. **Beraz, diru-sarreraren arteko aldea Gipuzkoan eta EAEn baino handiagoa da Orion, eta Espainiakoaren parekoa.**

17. Grafikoa Gini koefizientea



Iturria: Siadeco 2018, GFA-Gizarte Politikako Departamentua 2014, EJ-Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila 2016, INE 2017


32. Taula Gini koefizientea

| | Orio | Gipuzkoa (2014) | EAE (2016) | Espainia (2017) |
|-------------------|------|-----------------|------------|-----------------|
| Gini koefizientea | 34 | 26,3 | 25,8 | 34,1 |

Iturria: Siadeco 2018, GFA-Gizarte Politikako Departamentua 2014, EJ-Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila 2016, INE 2017

Gini koefizientea grafikoki irudikatu ohi da, Lorenz-en kurbaren bitartez. Lorenz-en kurbak biztanleriaren ehuneko metatua eta biztanleria horrek dituen diru-sarreraren ehuneko metatua lotzen ditu. 45ºko diagonalak, aldiz, ekitate osoa irudikatzen du. Horrezbestez, **Lorenz-en kurba erabateko berdintasunaren lerro hipotetikotik aldentzen doan neurrian, diru-sarreraren arteko desberdintasuna handiagoa da.**

18. Grafikoa
LORENZ-en KURBA: ORIO 2018



Iturria: Siadeco 2018

04_2.2 S80/S20 erlazioa

Lurrean jakin batean diru-sarrera altuenak dituztenen %20k, diru-sarrera baxuenak dituztenen %20k baino zenbat gehiago daukaten adierazten du. Eurostat-ek erabili ohi duen adierazlea da, diru-sarreretan oinarritutako desberdintasunaren fenomenora hurbiltzeko. Gero eta altuagoa izan adierazlearen balioa, orduan eta handiagoa da desberdintasuna. Nabarmenezkoa da, hala ere, adierazleak familien diru-sarrerak soilik kontuan hartzen dituela, ez ordea, ondare higigarri edo higiezinak.

Inkestako datuen arabera, **S80/S20 adierazlea 5,8koa da Orion**. Horrenbestez, diru-sarrera altuenak dituen biztanleriak diru-sarrera baxuenak dituen biztanleriak baino 5,8 aldiz gehiago dauka.

Neurria ateratzeko beharrezkoa da biztanleria kintiletan zatitzea, eta banaketa horren arabera ikusten da errenta txikiena duen **biztanleriaren %20k errenta osoaren %6,6 kontzentratzen duela, eta errenta handiena duen %20k, aldiz, errenta osoaren %38,3 jasotzen duela.**


33. Taula
Kintilen eta S80/S20 adierazlearen arabera
diru-sarrera guztien banaketa Orion

| 1.kintila | 2.kintila | 3.kintila | 4.kintila | 5.kintila | S80/S20 |
|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|---------|
| 6,6 | 13,6 | 18,3 | 23 | 38,3 | 5,8 |

Iturria: Siadeco, 2018

Orioko datua inguruko lurralde-eremuekin alderatuta, agerian gelditzen da errenta altuena duen biztanleriaren eta errenta baxuena duen biztanleriaren arteko **aldea handiagoa dela Orion, Gipuzkoan eta EAEn baino. Espainian, dena den, are handiagoa da diferentzia.**

19. Grafikoa
S80/S20



Iturria: Siadeco 2018, GFA-Gizarte Politikako Departamentua 2014, EJ-Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila 2016, INE 2017

34. Taula
S80/S20 erlazioa (%)

| | Orio | Gipuzkoa (2014) | EAE (2016) | Espainia (2017) |
|---------|------|-----------------|------------|-----------------|
| S80/S20 | 5,8 | 4,0 | 3,9 | 6,6 |

Iturria: Siadeco 2018, GFA-Gizarte Politikako Departamentua 2014, EJ-Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila 2016, INE 2017.

04_3

Gizarte bazterketa

Termino zabala da gizarte bazterketa, bizitzako esparru desberdinetan eman daitekeelako: ekonomia, enplegua, familia, gizartea, politika, hezkuntza... Ondorioz, fenomenoa neurtzeko ere, ez dago pobreziaren eta gabeziaren mailako adostasunik. Errentari eta Bizi Baldintzei buruzko Europar Batasuneko Estatistiken (EU-SILC) baitan sortutako AROPE tasa aipa daiteke, baina mugatua da, nolana ere, arlo ekonomikoa eta materiala soilik kontuan hartzen dituelako.

Horiek horrela, azken urteetan gizarte bazterketa neurtzeko egin den hurbilketa berrienetako bat Espainiako FOESSA Fundazioarena da. Gizarte bazterketaren fenomenoaren dimentsio eta prozesu anitzeko kontzeptu gisa aztertzen du.

04_3.1 Gizarte bazterketa FOESSA Fundazioaren adierazleen sistemaren bidez

FOESSA Fundazioak 35 adierazle erabiltzen ditu, pobrezia ekonomikoaz eta gabezia materialaz harago, gizarte bazterketan eragina duten **8 dimentsio ezberdin** aztertzeko: **enplegua, kontsumoa, politika, hezkuntza, etxebizitza, osasuna, gizarte gatazkak, gizarte isolamendua.**

35 adierazle horietatik **20 aztertu dira Orioko inkestan**. Enpleguarekin lotutako bazterketa egoerei dagokionez, **pertsona okupaturik, pentsiodunik edo langabezia-prestaziorik jasotzen duen pertsonarik gabeko etxebizitzena** da gehien errepikatzen den kasua. **Etxebizitzen %5,1** da, 110 etxebizitza inguru izan daitezke Orion.

Kontsumoarekin lotutako bazterketan, **muturreko pobreziaren adierazlea da azpimarratzeko modukoa: etxebizitzen %4,9tan dituzte familia errenta baliokidearen %30az azpiko diru-sarrerak**. 110 etxebizitza inguru izan daitezke Orion.

Bazterketa politikoari dagokionez, **etxebizitzen %11,2tan ez dute hauteskundeetan parte hartzen, ezta inolako herri eragileren jardueretan ere** (250 etxebizitza inguru). Etxebizitzarekin lotutako bazterketan, hedadura handia duen hezatasun-arazoaz gainera (etxebizitzen %27,5),

nabarmentzekoa da **etxebizitzen %8,5etan oztopo arkitektonikoak daudela**, mendekotasuna duten pertsonak bizi direlarik (190 etxebizitza inguru Orion).

Osasunarekin lotutako bazterketa egoeretan, **etxebizitzen %10,9tan eguneroko bizimoduko jardueretarako muga eragiten dien ezintasun, gaixotasun kroniko edo osasun arazoren bat dute pertsona heldu guztiak** (250 etxebizitza inguru). Gizarte gatazkei dagokion adierazle bakarra aztertu da Orion: **tratu txar fisiko edo psikologikoak jaso dituztenena: etxebizitzen %3,6tan dute halako egoeraren bat** (80 etxebizitza inguru Orion).

35. Taula
Gizarte bazterketaren FOESSA adierazleak. Datu erlatibo eta absolutuak, pertsona eta etxebizitzak

| | Pertsonak | Etxebizitzak |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|--------------|
| | % | % |
| 1. Erreferentziazko pertsona duela urtebete edo gehiago langabezian dagoen etxeak. Ekonomiaren eta etxebizitzaren titularitatearen ikuspegitik etxea osatzen duten pertsonen nagusiztat hartzen duten pertsona da | 3,7 | 3,2 |
| 2. Erreferentziazko pertsonak bazterketa enplegu bat (lan kontraturik gabeko bat) duen etxeak | 0 | 0 |
| 4. Pertsona okupaturik, pentsiodunik zein kotizatu dutenen langabeziagatik prestaziorik gabeko etxeak | 5,4 | 5,1 |
| 6. Pertsona aktibo guztiak langabezian dituzten etxeak. 16 eta 64 urte bitarteko adina duten kideetako inork okupaziorik ez duen etxeak dira | 3,4 | 3,9 |
| 7. Muturreko pobrezia: familia errenta baliokidearen %30aren azpitiko sarrerak | 4,9 | 3,9 |
| 8. Ekonomiak aukerarik ematen ez diela eta, gizartearen %95 baino gehiagorentzat oinarritzkoa den ondasunen bat ez duten etxeak. Ekipamendu hauek sartzen dira: ur korrontea, ur beroa, elektrizitatea, hondakin urak ateratzea, bainugela osoa, sukaldea, garbigailua, hozkailua (Orion: hozkailua eta garbigailua) | 0,2 | 0,2 |
| 9. Batasunetik kanpoko herritartasuna duten 18 urte edo gehiagoko pertsonaren bat duten etxeak. (Orion: Batasunetik kanpo jaiotako 18 urte edo gehiagoko pertsonaren bat duten etxeak. Pertsonen atalean, etxe horietan bizi diren guztiak sartuta daude, haurrak barne). | 9,0 | 12,4 |
| 10. Hauteskundeetan parte hartzen ez duten -interes faltagatik edo ezertarako balio ez duela uste dutelako- eta inolako herri erakunderen kide ez diren etxeak | 5,4 | 11,2 |

| | Pertsonak | Etxebizitzak |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|--------------|
| | % | % |
| 11. Eskolatu gabeko 3 eta 15 urte bitarteko pertsonak dituzten etxeak | 0 | 0 |
| 12. 16-65 urte bitarteko inork ikasketarik ez duen etxeak. 16 eta 44 urte bitartekoak, OHO, DBH edo Eskola Graduata osatzeko; 45 eta 64 urte bitartekoak, 5 urte baino gutxiago eskolan. | 0,8 | 0,7 |
| 13. 64 urtetik gorako pertsona analfabetoak dituzten etxeak | 1,4 | 1,5 |
| 14. Infraetxebizitzetan bizi direnak: txabola, etxabea, barrakoaia, aurrefabrikatua edo antzekoa. | 0 | 0 |
| 16. Hezetasuna, zikinkeria eta usainak dauden eraikinetako etxebizitzak. (Orion: adierazle honek itoginak sabaian, hezetasuna hormetan, lurrean eta zimenduetan, edo leihoetako markoak, ateak edo lurra ustelduta duten etxebizitzak, eta horietan bizi diren pertsonak hartuko genituzke kontuan). | 29,2 | 27,5 |
| 17. Pilaketa jasaten duten etxeak (<20 m2 erabilgarri pertsonako) | 8,3 | 5,8 |
| 18. Edukitza prekarioko eraikinetako etxebizitzak (doan lagatakoa, berralokatua) | 0,9 | 1,0 |
| 20. Arkitektura hesiak dituzten eta elbarritasun fisikoa duten pertsonak dauden etxeak | 7,5 | 8,5 |
| 22. Osasun estaldurarik gabeko norbait duten etxeak | 0 | 0 |
| 23. Gosea pairatzen duten edo azken 10 urteotan zehar egoera hau sarritan igaro duten etxeak. (Orion: galderak azken 12 hilabeetara egiten du erreferentzia. Eta ez du "sarri" gertatu ote den galdetzen). | 1,9 | 1,9 |
| 24. Pertsona heldu guztiek ezintasun, gaixotasun kroniko edo osasun arazo larriren bat duten eta arazo horiek pertsonari eguneroko bizimoduko jardueretarako muga eragiten dieten etxeak | 5,9 | 10,9 |
| 28. Azken 10 urtean norbaitek tratatu fisiko edo psikologiko txarrak jaso edo jasotzen dituen etxeak. (Orion: ez da azken 10 urteen inguruan galdetu, baizik eta "arazoak al ditu"). | 3,1 | 3,6 |

Iturria: Siadeco 2018

04_4

Talde sozialak eta ahultasun handieneko etxebizitzak

Aurreko puntuetan, pobrezia, gabezia eta gizarte bazterketa egoeren inguruko datu orokorrak eman dira, biztanleria osoari dagozkionak. Alabaina, egoera horiek ez diete gizarte-talde guztei modu eta neurri berean eragiten. Ezberdintasun horiek zenbaterainokoak diren aztertzeaz gainera, atal honetan, pobrezia eta gabezia egoeretan bizi diren familia-taldeen profila osatzeko informazioa eskainiko da. Horretarako, adierazle nagusiak familia-taldeen eta pertsonen ezaugarriekin gurutzatuko dira.

Azpmarratu beharra dago inkestako laginaren tamaina kontuan hartu behar dela atal honetan. Izan ere, zenbait egoeratan aztertutako kasuak oso gutxi dira, eta ondorioz ez dira behar bezain adierazgarriak. Horregatik ez dago iruzkinik deigarri izan daitezkeen zenbait daturen inguruan.

Adierazleak:

- 1 Pobrezia erlatiboa
- 2 Pobrezia larria
- 3 Gabezia material larria
- 4 Pobrezia energetikoa

Familia-taldeen eta pertsonen ezaugarriak:

- 1 Familia-talde mota
- 2 Sexua
- 3 Adin-tartea
- 4 Jaiolekua
- 4 Lan egoera
- 5 Etxebizitzaren kokapena

04_4.1 Familia-talde motaren arabera


Etxebizitza bakoitzean bizi den familia edo talde-motaren arabera, agerian gelditzen da **guraso bakarren zaugarritasun egoera. Izan ere, familia horien%18,8 bizi da pobrezia erlatiboan, eta %15,6 pobrezia larrian.** Gainera, talde horien %6k gabezia material larria dauka.

Seme-alabadun senar-emazte gutxiago dago pobrezia erlatiboan (%6), baina azpimarratzekoa da horien %11,4 pobrezia larrian dagoela. **Beste familia moten eta familia ez direnen artean ere handia da pobrezia erlatiboan eta bereziki pobrezia larrian (%22,2) daudenen ehunekoa.** Kasu horien artean, etorkinen egoera korapilatsuak daude, besteak beste: elkarrekin bizi diren guraso bakarrak, senide ez diren gizon-emakumeen taldeak etab.

Pobrezia arrisku gutxien duen familia-taldea seme-alabarik gabezko senar-emazte edo bikoteena da. Pertsona bakarreko etxebizitzetara dagokionez, pobrezia larrian bizi direnen ehunekoa beste kasu batzuetan baino baxuagoa bada ere, pobrezia erlatiboan bizi direnena nabarmentzekoa da (%13,1).

Pobrezia energetikoari dagokionez, altua da kasu guztietan, hezetasunarekin oro har dagoen arazoaren eraginez.

20. Grafikoa
Familia edo talde motaren arabera (%)



Iturria: Siadeco 2018


04_4.2 Sexuaren arabera

Sexuari dagokionez, agerian gelditzen da pobrezia eta gabezia egoerek eragin handiagoa dutela emakumeengan. Biztanleria osoa kontuan hartuta, diferentzia ez da handia, puntu bana pobrezia erlatiboan eta pobrezia larrian, eta puntu erdi eskas gabezia material larrian.

Etxebizitzako erreferentziako pertsonari erreparatuta, aldiz, antzematen da pertsona hori emakumezkoa denean arriskua handiagoa dela. Pobrezia erlatiboan, batez ere, aldea handia da: zortzi puntukoa, erreferentziako pertsona gizonezkoa duten familia-taldeekiko.

21. Grafikoa

Pobrezia erlatiboa eta larria, erreferentziako pertsonaren sexuaren arabaera%)



Iturria: Siadeco 2018

36. Taula
Sexuaren arabera (%)

| | | Biztanleria osoa | | | Erreferentziako pertsonak | | |
|----------|-----------|------------------|-------------|---------|---------------------------|-------------|---------|
| | | Gizonezkoa | Emakumezkoa | Guztira | Gizonezkoa | Emakumezkoa | Guztira |
| Pobrezia | Erlatiboa | 8,6 | 9,6 | 9,3 | 8,2 | 16,4 | 9,7 |
| | Larria | 10,2 | 11,2 | 11,3 | 9,1 | 9,6 | 9,5 |

Iturria: Siadeco, 2018

04_4.3 Adin-tarteen arabera

Biztanleria osoaren adin-tarteak kontuan hartuta, **nabarmenezkoa da 25 urtetik beherakoengan duela eragin handiena pobreziak eta gabeziak**. Bereziki azpimarratzekoa da 17 eta 25 urte artekoen %14 bizi dela pobrezia erlatiboan dauden etxebizitzetan, eta %20,9 pobrezia larrian daudenetan. Hortik behera, 6-16 urte artekoen %13 eta 6 urtetik beherakoen %16,5 bizi da pobrezia larrian. **Asko dira, beraz, euren familiaren egoera ahularen eragina jasaten duten haurrak. Gabezia materialak ere haiei eragiten die gehien** (%6,4 txikienen artean eta %7,3 6-16 urtekoen artean).

Etxebizitzako erreferentziarako pertsonaren adinari begiratuta, deigarria da 17-25 urte artekoen artean herena dela pobrezia arriskuan dagoena, eta beste heren bat pobrezia larrian dagoela. Kontuan hartu behar da, hala ere, 3 adin-tarte horretako erreferentziarako pertsona duten 3 familia soilik elkarrizketatu direla.

Azpimarratzekoa da, era berean, **erreferentziarako pertsona adinekoa denean ahultasun ekonomikoa altuagoa** dela. Pobrezia larria baxua da, kasu horietan, baina pobrezia erlatiboan altua: %17koa 61-70 urte arteko erreferentziarako pertsona duten etxebizitzetan, eta %10,7koa 70 urtetik gorakoa dutenen kasuan. Pobrezia materialak eta pobrezia energetikoak, aldiz, eragin eskasa du adinekoengan.

37. Taula
Adin-tarteen arabera _ Biztanleria osoa (%)

| | | <6 urte | 6-16 urte | 17-25 urte | 26-40 urte | 41-50 urte | 51-60 urte | 61-70 urte | >70 urte | Guztira |
|-------------------------|-----------|---------|-----------|------------|------------|------------|------------|------------|----------|---------|
| Pobrezia | Erlatiboa | 8,3 | 8,9 | 14,0 | 5,6 | 11,5 | 7,3 | 16,7 | 9,9 | 9,3 |
| | Larria | 16,5 | 13,0 | 20,9 | 11,2 | 10,4 | 8,8 | 6,7 | 5,0 | 11,3 |
| Gabezia material larria | | 0,0 | 6,4 | 7,3 | 4,7 | 5,6 | 3,1 | 4,4 | 0 | 0 |
| Pobrezia energetikoa | | 21,1 | 39,4 | 39,1 | 36,0 | 36,0 | 33,3 | 37,2 | 15,6 | 21,5 |

Iturria: Siadeco, 2018

38. Taula
Adin-tarteen arabera_Erreferentziako pertsonak (%)

| | | 17-25 urte | 26-40 urte | 41-50 urte | 51-60 urte | 61-70 urte | >70 urte | Guztira |
|-------------------------|-----------|------------|------------|------------|------------|------------|----------|---------|
| Pobrezia | Erlatiboa | 33,3 | 5,6 | 9,7 | 9,0 | 17,0 | 10,7 | 9,7 |
| | Larria | 33,3 | 10,3 | 10,7 | 11,9 | 6,4 | 6,0 | 9,5 |
| Gabezia material larria | | 0,0 | 0,0 | 6,5 | 3,9 | 4,5 | 0,0 | 3,4 |
| Pobrezia energetikoa | | 21,1 | 66,7 | 35,5 | 34,0 | 40,3 | 14,9 | 30,7 |

Iturria: Siadeco, 2018


04_4.4 Erreferentziako pertsonaren jaiolekuaren arabera

Etxebizitza bakoitzeko erreferentziako pertsonaren jaiolekuari erreparatuta, agerian gelditzen da **etorkinen eta haien familien artean ematen dela pobrezia larri kasu gehien**. Izan ere, atzerrian jaiotako erreferentziako pertsona duten etxebizitzaren %40tan pobrezia larrian bizi dira. Pobrezia erlatiboa ere kontuan hartuta, **azpimarratzeko modukoa da erreferentziako pertsona atzerrian jaiotako pertsona duten etxebizitzaren erdietan baino gehiagotan pobrezia larriaren atalasetik behera daudela**. Laurdenak, gainera, gabezia material larriak dauzka.

Beste muturrean, nabarmentzekoa da **Orion jaiotako erreferentziako pertsonak dituzten hamar etxebizitzetatik batetan pobrezia larri bizi direla**. %7,8tan, pobrezia erlatiboan. Barne-migratzaileei dagokienez, pobrezia larria eta gabezia materialak Espainiako estatuko beste lurraldeetan jaiotakoaren artean du eragin gehien. **Gipuzkoako beste herrietan eta EAEn edo Nafarroan jaiotakoaren artean, pobrezia larriak oso eragin txikia du**.

22. Grafikoa

Erreferentziazko pertsonaren jaiolekuaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2018

04_4.5 Erreferentziazko pertsonaren lan egoeraren arabera

Enpleguaren, eta bereziki, haren faltaren eragina agerikoa da. **Erreferentziazko pertsona langabezian duten etxebizitzaren %40 pobrezia larrian dago, eta pobrezia erlatiboan beste %30.** Erdiak, gainera, pobrezia energetikoa jasaten du.

Azpimarratzekoa da **erreferentziazko pertsona erretiroa hartutakoa denean, etxebizitzaren %11,6tan pobrezia erlatiboan bizi direla.** Bestalde, larria da etxeaz arduratzen diren erreferentziazko pertsonak dituztenen egoera: erdia pobrezia larrian dago eta pobrezia erlatiboan beste erdia (Kontuan hartu behar da, dena den, kasu horretan, lagina oso txikia dela, bi familia besterik ez daudelako egoera horretan).

Beste muturrean, soldatapeko enplegu bat dutenen %7,8 dago pobrezia larrian eta %5,3 pobrezia erlatiboan. Euren kontura lan egiten duten erreferentziazko pertsonak dituzten etxebizitzaren artean, %5,3koa da pobrezia larria, eta %7,9koa pobrezia erlatiboan.

39. Taula
Erreferentziazko pertsonaren lan-egoeraren arabera (%)

| | | Bere kontura egiten du lan | Familia-negozioan egiten du lan | Soldatapeko enplegu mugagabea edo aldi baterakoa dauka | Aldi baterako baja gaixotasunagatik edo amatasunagatik | Etxeaz arduratzen da | Erretiratu, erretiro aurreratua, ez da gehiago ari | Baliaezintasuna/ezgaitasuna | Langabezian | Guztira |
|-------------------------|------------|----------------------------|---------------------------------|--------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------|----------------------|----------------------------------------------------|-----------------------------|-------------|---------|
| Pobrezia | Erlatiboan | 7,9 | 0,0 | 5,3 | 25,0 | 50,0 | 11,6 | 0,0 | 30,0 | 9,7 |
| | Larria | 5,3 | 33,3 | 7,8 | 25,0 | 50,0 | 5,0 | 0,0 | 40,0 | 9,5 |
| Gabezia material larria | | 0,0 | 0,0 | 3,4 | 0,0 | 50,0 | 0,0 | 0,0 | 16,7 | 3,4 |
| Pobrezia energetikoa | | 21,1 | 0,0 | 35,0 | 0,0 | 50,0 | 21,5 | 50,0 | 50,0 | 30,7 |

Iturria: Siadeco, 2018

Lanean ari diren erreferentziazko pertsonak dituzten etxebizitzetan pobreziaren eragina txikiagoa bada ere, agerian gelditzen da enpleguak ez duela pobrezia guztiz saihestea bermatzen. Kontratu motak eragina izan dezake, besteak beste.

Izan ere, **aldi baterako kontratua duten erreferentziazko pertsonak dituzten etxebizitzetan, adierazle guztiak altuagoak dira kontratu mugagabea dutenen edo kooperatibista direnen artean baino**. Nabarmantzekoa da, era berean, **autonomoak diren erreferentziazko pertsonak dituzten etxebizitzaren %13,2 pobrezia larrian dagoela**.

40. Taula
Erreferentziako pertsonaren lan kontratuaren arabera (%)

| | | Iraupen mugagabekoa/ Koopratibista | Aldi baterakoa | Obra eta zerbitzukoa | Autonomoa | Guztira |
|-------------------------|-----------|---------------------------------------|----------------|----------------------|-----------|---------|
| Pobrezia | Erlatiboa | 4,1 | 7,4 | 25 | 5,9 | 9,7 |
| | Larria | 4,4 | 8,5 | 0 | 13,2 | 9,5 |
| Gabezia material larria | | 0,0 | 1,9 | 4,3 | 0 | 1,5 |
| Pobrezia energetikoa | | 21,1 | 28,3 | 48,9 | 62,5 | 16,2 |

Iturria: Siadeco, 2018

04_4.6 Etxebizitzaren kokapenaren arabera

Pobrezia eta gabezia egoerak etxebizitzaren kokapenaren arabera aztertze aldera, 6 zonalde eratu dira. Saillapen horren arabera, **Ibai Aldea eta Alde Zaharra dira kaltetuenak**, pobrezia larriari eta gabezia material larriari dagozkion ehuneko handienekin. Alde zaharrea, Kale Nagusia eta batez ere, Antxiola kalea nabarmendu daitezke. Ibai aldean Aita Lertxundi kalea eta Anibarko portua urbanizazioa daude. Azken horretan, etxebizitza sozialen eraikin bat dagoela kontuan hartu behar da.

Hezetasunarekin, itoginekin eta usteldurekin lotura zuzena duen pobrezia energetikoak alde zaharrea eragiten du gehien. Gainerako zonaldeak ere kopuru altua ematen du. Bertan, herrigunetik kanpoko baserri eta etxeak sartzen dira.

41. Taula
Etxebizitzaren kokapenaren arabera (%)

| | | Alde zaharra | Erdigunea | Zabalgunea | Hondartza bidea eta hondartza aldea | Ibai aldea | Gainerakoak | Guztira |
|-------------------------|-----------|--------------|-----------|------------|-------------------------------------|------------|-------------|---------|
| Pobrezia | Erlatiboa | 11,7 | 7,1 | 7,2 | 14,3 | 13 | 10 | 9,7 |
| | Larria | 11,7 | 8,8 | 7,2 | 1,6 | 13 | 10 | 9,5 |
| Gabezia material larria | | 6,7 | 2,7 | 2,9 | 1,6 | 5,2 | 0,0 | 3,4 |
| Pobrezia energetikoa | | 48,3 | 30,1 | 20,3 | 28,6 | 28,6 | 40,0 | 30,7 |

Iturria: Siadeco, 2018

Sei zonaldeak Oriko mapan



Iturria: Oriko Udala, Siadecok landua

- Hondartza aldea eta hondartza bidea
- Zabalgunea
- Erdigunea

- Alde Zaharra
- Ibai aldea

05

Inkestako
emaitzen
irakurketa
orokorra



Ikerketarako egindako inkestako emaitzen irakurketa orokorra jasotzen du atal honek. Aurreko atalean aurkeztutako adierazle nagusiez aparte, **Orioko pobrezia, desberdintasun eta gizarte bazterketa egoeren inguruko diagnosia osatzeko balio dezaketen bestelako datuak eskaintzen dira**, inkestan landutako gai ezberdinak banan-bana aztertuta. Lehen zatian etxebizitzetako familia-taldeei buruzko informazioa ematen da, eta pertsonen ingurukoa, bigarreanean.


05_1

Etxebizitzak

05_1.1 Etxebizitza mota

Inkesta erantzun duten familien %90 baino gehiago etxebizitza-erakinetan bizi da. Gehienak, 10 etxebizitza baino gutxiagokoetan. Gutxi dira banakako etxebizitzak, eta horien artean, maila berean daude baserriak eta txaletak.


23. Grafikoa
Eraikin mota (%)



Iturria: Siadeco 2018

Etxebizitza bakoitzean bizi den **familia-talde motari dagokionez, nagusi dira seme-alabadun senar-emazte edo bikoteak (%45)**. Ia laurdenera iristen dira seme-alabarik gabeko senar-emazte edo bikoteak, baina kontuan hartu behar da seme-alabak dagoeneko etxetik kanpo dituzten bikoteak ere sartzen direla kategoria horretan. Pertsona bakarrekoak, Orioko etxebizitzaren %15 inguru dira, inkestako datuen arabera. Guraso bakarreko etxebizitzak, bestalde, ia %8ra iristen dira.

24. Grafikoa Etxebizitzetako familia-taldeak (%)




Iturria: Siadeco 2018

05_1.2 Etxebizitzen jabetza-erregimena

Inkestako lagina osatu duten etxebizitzen %77 jabetzan dago, gehienak, **erabat ordainduta** (lagineko etxebizitzen %45,7). Alokairuan dago etxebizitzen %21 eta doan utzitakoa %1 baino ez da.

25. Grafikoa
Etxebizitzen jabetza-erregimena (%)



Iturria: Siadeco 2018

05_1.3 Etxebizitzen ekipamenduak eta egoera

Orioko etxebizitzen artean, **oso gutxi dira oinarrizko ekipamenduren bat falta dutenak**. Nabarmentzeko modukoa da, hala ere, udalerrian badirela sukalderik (etxetresna elektrikoa) edo garbigailurik ez duten etxebizitzak: 10-12 inguru izan daitezke Orion, inkestako emaitzen arabera estimatuta. Gipuzkoan eta EAEn egindako ikerketetan, aldiz, ez da sukalderik gabeko etxebizitzarik antzeman. Garbigailurik gabekorik bai, baina gutxiago. Gainerako ekipamenduei dagokienez, lurralde-eremuen artean ez dago alde handirik.

42. Taula
Arrazoi ekonomikoengatik ondorengo ekipamenduak ez dituzten etxebizitzak (%)


| | Orio | Gipuzkoa (2014) | EAE (2016) | Espainia (2017) |
|----------------------------------|------|--------------------|---------------|--------------------|
| Hozkailua | 0,2 | 0 | 0,1 | 0,2 |
| Sukaldea (etxetresna elektrikoa) | 0,5 | 0 | 0 | 0,5 |
| Garbigailua | 0,5 | 0,1 | 0,1 | 0,5 |
| Labea edo mikrouhin labea | 0,7 | | 1 | 0,7 |
| Kolorezko telebista | 0,5 | 0,4 | 0,5 | 0,5 |
| Telefonoa (finkoa edo mugikorra) | 0,2 | 0,1 | 0,3 | 0,2 |

Iturria: Siadeco 2018, GFA-Gizarte Politikako Departamentua 2014, EJ-Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila 2016

Orioko etxebizitzek eduki ditzaketen arazo ezberdinei erreparatuta, **hezetasuna eta itoginak azpimarratu beharra dago. Etxebizitzen %27,5etan baieztatu dute halako egoerak dituztela** (Orion 600 etxebizitza baino gehiago izan daitezke, beraz). Nolanahi ere, ehuneko horrek Gipuzkoakoaren eta EAEkoaren bikoitza gainditzen du.

Bestalde, **etxebizitzen %8,5etan ozpoto arkitektonikoak dituztela adierazi dute**. Laginean arazo hori duten 35 etxebizitzetatik 6tan 5 urte edo gutxiago dituen haur bat bizi da, 23tan 65 urte edo gehiagoko norbait, eta 4tan, mendekotasun arazoak dituen beste pertsonaren bat. Kasu gehienetan igogailu faltaz ari dira oztopo arkitektonikoak nabarmentzen dituztenean, baina etxe barneko atea edo komuna ere aipatu dituzte batzuek.

26. Grafikoa
Etxebizitzetako arazoak (%)



Iturria: Siadeco 2018, GFA-Gizarte Politikako Departamentua 2014, EJ-Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila 2016

Ikerketan aztertutako 10 etxebizitzetatik 4k badu arazo horietakoren bat: etxebizitzaren %30,2k bat bakarrik, eta %10ek bi arazo baino gehiago.


43. Taula
Arazo bat edo gehiago dituzten etxebizitzak

| | % |
|----------------|--------------|
| Arazorik ez | 59,4 |
| Arazo 1 | 30,2 |
| 2 arazo | 7,5 |
| 3 arazo | 2,4 |
| 4-5 arazo | 0,5 |
| Guztira | 100,0 |

Iturria: Siadeco 2018

Arazo nagusiak identifikatzeaz gainera, etxebizitzaren kontserbazio egoeraren inguruko iritzi orokorrak ere eskatu zaizkie elkarrizketatuei. **Gehien-gehienek etxebizitzak “maila egokia” duela erantzun dute** (%85,6). Hobetu daitekeela adierazi du elkarrizketatuen %12,7k, eta salbuespen dira euren etxea “behar bezain ondo” ez dagoela uste dutenak: %0,7 (15 etxebizitza inguru izan daitezke Orion).

27. Grafikoa
Etxebizitzaren kontserbazio egoeraren inguruko iritziak



Iturria: Siadeco 2018

05_1.4 Etxebizitzetako oinarrizko gastuak eta beharrianak

Aztertutako etxebizitzetako **familia-taldeen %10ek baieztatu du, azken hilabeteetan, uneren batean ezin izan diela oinarrizko gastuei aurre egin** (Errenta, jakiak, Gabonetako gastuak, eskolara bueltatzeko gastuak etab.). Arazo larria da kasu batzuetan, familia-taldeen %2k sei hilabetez edo gehiagoz eduki baitu.

44. Taula
Azken hilabeteetan bizirauteko oinarrizko gastuei aurre egin ez dieten etxebizitzak (%)

| | |
|------------------------------------------------------------------------|-----|
| Azken hilabeteren batean ezin izan diete oinarrizko gastuei aurre egin | 10 |
| 1-2 hilabete | 3,2 |
| 3-5 hilabete | 1,7 |
| 6 edo gehiago | 1,9 |
| Zehaztu gabe | 3,2 |

Iturria: Siadeco 2018

Oinarrizko beharrianetan sakonduta, **Gipuzkoan eta EAEn baino gehiago dira Orion azken urtean gosea pasa dutenak, arrazoi ekonomikoengatik: ia %2** (Orioko 45 etxebizitza inguru izan daitezke, inkestako emaitzen arabera). Gosea pasa dutenak baino gehiago dira Orion azken neguan hotza pasa dutenak (%4,5), baina gainetik daude, hala ere, Gipuzkoako eta EAeko datuak, tenperatura egokia mantentzeko ezintasunari dagokionez.

45. Taula
Oinarrizko beharrianak asetzen ez dituzten etxebizitzak (%)

| | Orio | Gipuzkoa (2014) | EAE (2016) |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------|-----------------|------------|
| Azken 12 hilabeteetan, gosea pasa eta ezin izan dute jan, arrazoi ekonomikoengatik | 1,9 | 1,1 | 1,7 |
| Ez dute haragirik, oilaskorik edo arrainik (edo baliokide begetarianorik) jaten bi egunez behin, behintzat | 3,2 | 2 | 3,4 |
| Azken neguan hotza pasa dute, batzuetan, etxebizitza tenperatura egokian mantentzeko ezintasunagatik | 5,4 | 8,5 | 8,9 |

Iturria: Siadeco 2018, GFA-Gizarte Politikako Departamentua 2014, EJ-Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila 2016

05_1.5 Beste zenbait gasturi aurre egiteko zailtasunak

Egoera ekonomikoak eragindako beste zenbait arazo aztertuta, ohikoena, **arropa, elikadura edo etxebizitza gastu oinarritzakoak murriztu behar** izatea da. Lagineko etxebizitzaren %14tan bizi izan dute egoera hori, azken urtean. Nabarmentzekoa da **etxebizitzaren %4,5ek ez dituela argindarra, ura, gasa edo bestelako erregaiak ordaindu** (urtean behin, gutxienez), edo atzerapenak eduki dituela ordainketetan. 100 etxebizitza inguru izan daitezke Orion, inkestaren emaitzetan oinarritutako estimazioa eginda.

Kontuan hartzeko modukoa da, gainera, etxebizitzaren %5ek ondorengo arazoetako bi edo gehiago eduki dituela azken urtean.

46. Taula
Azken 12 hilabeteetan, arrazoi ekonomikoengatik, ondorengo arazoak eduki dituzten etxebizitzak (%)

| | Bai, behin | Bai, behin baino + | Ez | Guztira |
|-----------------------------------------------------------------------------------------|------------|--------------------|------|---------|
| Hipoteka edo alokairua ez ordaintzea, edo atzerapena ordainketan | 0,5 | 1,5 | 98,1 | 100,0 |
| Argindarra, ura, gasa edo bestelako erregaiak ez ordaintzea, edo atzerapena ordainketan | 1,5 | 2,9 | 95,6 | 100,0 |
| Maileguak edo bestelakoak ez ordaintzea edo atzerapena ordainketan | 0,7 | 1,5 | 97,8 | 100,0 |
| Argindar, ur edo telefono mozketak | 0,7 | 1,0 | 98,3 | 100,0 |
| Ondasunen bahitura | 0,2 | 0,5 | 99,3 | 100,0 |
| Ondasunak saltzea, etxebizitza aldatzea edo seme-alabak ikastetxez aldatu beharra | 0,7 | 1,0 | 98,3 | 100,0 |
| Arropa, elikadura edo etxebizitza gastu oinarritzakoak murriztu behar izatea | 2,2 | 11,9 | 85,9 | 100,0 |

Iturria: Siadeco 2018

47. Taula
Arazo horietakoren bat eduki duten etxebizitzak, eta arazo kopurua (%)

| | |
|-----------------------|--------------|
| Arazorik ez | 83,9 |
| Arazo bat | 10,7 |
| Bi arazo | 2,9 |
| Hiru arazo | 1,2 |
| Lau arazo edo gehiago | 1,2 |
| Guztira | 100,0 |

Iturria: Siadeco 2018

05_1.6 Autoa eta oporrak

Badira beste zenbait gastu, horren oinarritzkoak ez direnak, baina familiek bizi duten egoeraren inguruko informazio osagarria eman dezaketenak. Esate baterako, lagineko **etxebizitzaren %5,4tan ez dute autorik, arrazoi ekonomikoengatik. Oporrei dagokienez, etxebizitzaren %14tan ez dute, urtean aste betez gutxienez, oporretan joateko aukerarik eduki, arrazoi ekonomikoak direla eta.**

Gipuzkoan bildutako azken datuekin alderatuta, gastu horiei aurre egiten ez dietenen ehunekoa baxuagoa da Orion.

48. Taula
Kotxerik edo oporretan joateko aukerarik ez duten familia-taldeak,
arrazoi ekonomikoengatik (%)

| | Orion | Gipuzkoa (2014) |
|-------------|-------|-----------------|
| Kotxerik ez | 5,4 | 12,9 |
| Oporrik ez | 13,9 | 29,8 |

Iturria: Siadeco 2018, GFA-Gizarte Politikako Departamentua

05_1.7 Ondare-ondasunak


Aztertutako etxebizitzetako familia-taldeen ia %30ek ondare-ondasunak dauzka. Baina horien erdiak soilik zehaztu du ondare-ondasunen balioa. Edonola ere, balioen inguruko erantzunen arabera, ondare-ondasunen gutxieneko balioa 3.000 eurokoa da, eta maximoa 700.000koa. Batez besteko balioa 124.600 eurokoa da.

05_1.8 Aurrezkiak

Azpimarratzeko moduko datua da etxebizitzaren %30etan ez dutela inolako aurrezkirik. Eta aurrezkiak dituztenen artean ere, gutxi direla kopuru handiak dituztenak. Izan ere, etxebizitzetako familia-taldeen %4,5 da, bestelako diru-sarrerarik eduki ezean, 2 urtez baino gehiagoz aurrezkietatik bizitzeko aukera eduki dezakeena.

28. Grafikoa

Diru-sarrerarik eduki ezean, zenbat hilabetez biziko lirateke aurrezkietatik (%)



Iturria: Siadeco 2018

05_1.9 Etxebizitzaren egoerarekiko pertzepzioa

Haien etxebizitzako egoera definitzeko eskatu zaie solaskideei. **Jasotako erantzunen arabera, etxebizitzaren %6tan nahiko pobreak, pobreak edo oso pobreak direla uste dute** (130 etxebizitza inguru izan daitezke Orion).

Pobre izan gabe, betez bestekotik behera bizi direla uste dute etxebizitzaren %32,4tan. Oparoak edo aberatsak direla adierazi dute etxebizitzaren ia %2tan.

49. Taula

Etxebizitzetan euren egoeraren inguruan egin duten definizioa (%)

| | |
|----------------------------|--------------|
| Oso pobrea | 0,5 |
| Pobrea | 2,2 |
| Nahiko pobrea | 2,4 |
| Batez bestekotik beherakoa | 32,4 |
| Batez bestekoa | 45,3 |
| Erosoa | 14,6 |
| Oparoa | 1,2 |
| Aberatsa | 0,7 |
| Zehaztu gabe | 0,7 |
| Guztira | 100,0 |

Iturria: Siadeco 2018

05_1.10 Laguntza ekonomikoa

Inkesta erantzun duten familia-taldeen %8,8k azken urtean zehar laguntza ekonomikoa eskatu behar izan duela onartu du, senide, bizilagun edo lagunena, edo/eta entitate pribatuena (Cáritas, Gurutze Gorria etab.). **Laguntza jaso duten gehien-gehienek senide, bizilagun edo lagunaren partetik jaso dute soilik (%7,8)**. Entitate pribatuaren laguntza ekonomikoa jaso dutenak %0,2 dira, eta %0,7 bi laguntza motak jaso dituztenak.

50. Taula
Azken 12 hilabeteetan laguntza ekonomikoa jaso duten etxebizitzak

| | |
|------------------------------------------------------------------|------------|
| Senide, bizilaguna edo lagunaren laguntza | 7,8 |
| Entitate pribatuaren laguntza (Caritas, Gurutze Gorria...) | 0,2 |
| Senide, bizilagun edo lagunaren laguntza eta entitate pribatuena | 0,7 |
| Guztira | 8,8 |

Iturria: Siadeco 2018

05_1.11 Gizarte Zerbitzuen erabilera eta balorazioa

Entitate ezberdinek eskaintako Gizarte Zerbitzuen artean, **Orioko Udaleko Gizarte Zerbitzuak dira erabilera-maila altuena dutenak**, inkestako emaitzen arabera. Diferentzia handiarekin, gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuekin eta Gizarte Zerbitzu pribatuekin alderatuta. Hala ere, **balorazio desegoki gehien jaso duen entitatea ere bada**.

51. Taula
Gizarte Zerbitzuetara jo duten familiak: noiz egin duten eta jasotako zerbitzuaren balorazioa (%)

| | Noiz joan den | | | | Zerbitzuaz egindako balorazioa | | | |
|-----------------------------------------------------------------------|----------------------------|---------------------|---------------------------------|-------------|--------------------------------|---------|-----------|------------|
| | Bai, azken 12 hilabeteetan | Bai, duela 2-3 urte | Bai, duela 3 urte baino gehiago | Guztira | Egokia | Nahikoa | Desegokia | Guztira |
| Udaleko Gizarte Zerbitzuetara | 18,5 | 8,8 | 9,7 | 37,0 | 20,7 | 5,4 | 9,0 | 1,9 |
| Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetara | 3,4 | 2,9 | 2,2 | 8,5 | 5,6 | 1,7 | 1,0 | 0,2 |
| Gizarte Zerbitzu pribatuetara (Cáritas, Gurutze Gorria, elkarreak...) | 2,2 | 0,5 | 1,7 | 4,4 | 2,2 | 1,0 | 0,5 | 0,7 |

Iturria: Siadeco, 2018

05_1.12 Zaintzarako zerbitzuen eskaera

Zaintzarako zerbitzuen artean, **telealarma zerbitzua (%4,4) eta etxebizitzarako laguntza zerbitzua dira erabiltzaile gehien dutenak (%4,1)**. Zerbitzu horiek ematen dituzten entitateen titulartasunari erreparatuta, telealarma zerbitzua jasotzen dutenen artean, gehien-gehienek, zerbitzu publikoa jasotzen dute. Etxebizitzarako laguntza zerbitzuan, aldiz, titulartasun pribatukoak publikoen mailatik gertu daude.

52. Taula
Azken hilabeteetan etxebizitzako kideen zaintzarako zerbitzuak jaso dituzten etxebizitzak, eta laguntza eman duen entitatearen titulartasuna (%)

| | Publikoa | Pribatua | Guztira |
|--------------------------------------------|----------|----------|---------|
| Etxebizitzarako laguntza zerbitzua | 2,2 | 1,9 | 4,1 |
| Eguneko zentroa edo okupazionala | 0,5 | 0 | 0,5 |
| Telealarma zerbitzua | 4,1 | 0,2 | 4,4 |
| Aldi baterako egonaldia erresidentzian | 0 | 0,2 | 0,2 |
| Etxebizitza komunitarioa edo erresidentzia | 0,2 | 0,2 | 0,5 |

Iturria: Siadeco 2018

05_1.13 Haurren hezkuntza, aisia eta bestelako oinarrizko beharrak

Haurrak dituzten familia-taldeek, horiekin lotutako beharrei aurre egin behar dieten aldetik, arazo eta eragozpen bereziak eduki ditzakete. Inkestako emaitzen arabera, **16 urtetik beherako neska-mutilak dituzten etxebizitzetan %2,4tan, haurrek ez dute arropa berririk erabiltzen, arrazoi ekonomikoengatik**. Bestalde, etxebizitzetan %1,8tan, haurrek ez dute astean bi aldiz haragirik, oilaskorik, arrainik edo baliokide begetarianorik jaten, arrazoi ekonomikoengatik.

53. Taula
Haurren hezkuntzarekin eta aisiarekin lotutako beharriari aurre egiten ez dieten etxebizitzak (16 urtetik beherako neska-mutilak dituzten etxebizitzetan artean: 164 etxebizitza, guztien %39,9 (%))

| | |
|--------------------------------------------------------------------------|-----|
| Arropa berria (bigarren eskukoa ez dena) | 2,4 |
| Bi oinetako pare (urteko aro bakoitzerako den pare bana) | 1,2 |
| Fruta freskoa eta barazkiak, egunean behin gutxienez | 0 |
| Haragia, oilaskoa edo arraina (edo baliokide begetarianoa) egunean behin | 1,8 |
| Aire zabaleko aisi-ekipamendua (bizikleta, patinak, erraketa etab.) | 1,2 |
| Ospakizun bereziak (urtebetetzeak, bestelako ospakizunak) | 1,2 |

Iturria: Siadeco 2018

05_2

Pertsonak

05_2.1 Adin-tartea sexuaren arabera

Ikerketako lagineko biztanleen adin-tarte nagusiak atal metodologikoan azalduta datoz. Hala ere, adin-tarteak sexuaren arabera azter daitezke, eta alde horretatik, badaude azpimarratzeko moduko zenbait puntu. Esate baterako, **6-16 urtekoen, alegia, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan ari diren haur eta gaztetxoen artean, hiru puntu altuagoa da gizonezkoen ehunekoa**. 41-50 urtekoen artean berdina gertatzen da eta ia 3 puntukoa da aldea. **50 urtetik gorakoaren artean, aldiz, emakumeak gehiago dira**. 70 urtetik gorakoaren artean, bereziki, izan ere, puntu eta erdikoa da aldea, helduenen adin-tartean.

54. Taula
Biztanleen adin-tarteak sexuaren arabera (%)


| | Gizonezkoa | Emakumezkoa | Guztira |
|----------------|--------------|--------------|--------------|
| <6 urte | 8,1 | 8,6 | 9,0 |
| 6-16 urte | 18,1 | 14,8 | 16,6 |
| 17-25 urte | 7,0 | 7,5 | 7,3 |
| 26-40 urte | 20,9 | 22,0 | 21,2 |
| 41-50 urte | 18,1 | 15,4 | 16,3 |
| 51-60 urte | 11,1 | 12,2 | 11,6 |
| 61-70 urte | 7,0 | 8,2 | 7,6 |
| >70 urte | 9,7 | 11,3 | 10,3 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Iturria: Siadeco 2018

05_2.2 Legezko egoera zibila

Lagineko biztanleen artean, legezko egoera zibilari dagokionez, ezkongabeen taldea da ugariena (%47,5). Behin ezkonduak gertu daude, baina gainerako taldeak askoz txikiagoak dira. Nabarmenezko modukoa da alargunen kasua, lagineko biztanleriaren ia %5era iristen baitira.

29. Grafikoa
Legezko egoera zibilia (%)



Iturria: Siadeco 2018

05_2.3 Jaiolekua

Biztanleen jaiolekua adin-tarteekin gurutzatuta, barne eta kanpo migrazio mugimenduen eragina agerian gelditzen da. **50 urtetik gorako biztanleriaren erdia baino gehiago Orion jaiotakoa da.** Multzo horretan, Gipuzkoako beste udalerrri batean jaiotakoena da bigarren multzoa, eta Espainiako estatuko beste lurraldeetako hiruugarrena. Estatutik kanpo jaiotakoak, berriz, oso gutxi dira, helduenen artean.

17-50 urtekoen artean, aitzitik, atzerrian jaiotakoak estatuko beste lurraldeetakoak baino askoz gehiago dira, 17-25 (%20,9) eta 26-40 adin tartetan (%21,2) bereziki. Hala ere, 26-40 adin tartean, datu deigarriena da Gipuzkoako beste udalerrietan jaiotakoak, Orion jaiotako maila **berean duadela**. Hortik aurrera, adinean behera egin ahala, Orion jaiotakoak gero eta gehiago dira.

55. Taula
Jaiolekua, adin-tartearen arabera (%)

| | Orio | Gipuzkoako beste udalerrri bat | E.A.E. edo Nafarroa | Espainiako estatua | Beste herrialde bat | Zehaztu gabe | Guztira |
|------------|------|--------------------------------|---------------------|--------------------|---------------------|--------------|---------|
| <6 urte | 87,7 | 7,5 | 1,9 | 0,0 | 2,8 | 0,0 | 100,0 |
| 6-16 urte | 77,4 | 10,8 | 3,1 | 1,5 | 6,2 | 1,0 | 100,0 |
| 17-25 urte | 61,6 | 14,0 | 1,2 | 2,3 | 20,9 | 0,0 | 100,0 |
| 26-40 urte | 34,0 | 34,4 | 4,4 | 5,6 | 21,2 | 0,4 | 100,0 |
| 41-50 urte | 41,1 | 31,8 | 5,2 | 6,3 | 15,1 | 0,5 | 100,0 |
| 51-60 urte | 51,8 | 29,9 | 5,1 | 8,8 | 4,4 | 0,0 | 100,0 |
| 61-70 urte | 47,8 | 30,0 | 1,1 | 18,9 | 0,0 | 2,2 | 100,0 |
| >70 urte | 56,2 | 27,3 | 2,5 | 13,2 | 0,8 | 0,0 | 100,0 |
| Guztira | 54,6 | 24,6 | 3,5 | 6,5 | 10,4 | 0,5 | 100,0 |

Iturria: Siadeco 2018

Oriotik kanpo jaiotakoen artean, Gipuzkoako beste udalerrietan (%24,6) edo estatutik kanpoko herrialdeetan (%10,4) jaiotakoak dira nagusi. **Gipuzkoako beste udalerrien artean, gertuko udalerrietan jaiotakoak dira gehienak: Donostia, Zarautz, Aia eta Usurbil.**

Atzerriko herrialdeen artean, azken aldian **Erdialdeko Amerikako etorkinen kopuruak hazkunde handia eduki duela agerian gelditzen da:** udalerrian aspaldi errotutako herritarrak dituzten Senegalekin eta Marokorekin batera, Nikaragua, Cuba eta Honduras dira zerrendako lehen tokietan dauden jatorriak.

30. Grafikoa

Gipuzkoako beste udalerrietan eta atzerriko herrialdeetan jaiotakoen jatorria (kop.)



Iturria: Siadeco 2018

05_2.4 Hezkuntza

16 urte baino gehiagoko biztanleen artean, ia %30ek derrigorrezko hezkuntza edo bigarren hezkuntza du ikasketa maila altuena. Hortik gora, ia maila berean daude Lanbide Heziketa edo Unibertsitate ikasketak egin dituztenak: %20 inguru. Sexuaren arabera, nabarmentzekoa da Lanbide Heziketa amaitutakoen artean gehiago direla gizonezkoak, eta unibertsitate-ikasketak bukatutakoen artean, berriz, emakumeak.

56. Taula
Amaitutako ikasketak, sexuaren arabera (%)

| | Gizonezkoa | Emakumezkoa | Guztira |
|--------------------------------|--------------|--------------|--------------|
| Alfabetatu gabea | 0,0 | 1,0 | 0,5 |
| Derrigorrezkoa, amaitu gabe | 3,7 | 3,8 | 3,7 |
| Derrigorrezkoak, amaituta | 16,0 | 19,7 | 17,7 |
| Bigarren hezkuntza, amaituta | 12,3 | 11,3 | 11,7 |
| LH I/ Erdiko mailakoa amaituta | 9,7 | 7,2 | 8,2 |
| LH II/Goi mailakoa amaituta | 13,0 | 9,4 | 11,5 |
| Un. Erdi-mail. amaituta | 8,3 | 11,5 | 9,6 |
| Un. Goi-mail. amaituta | 9,5 | 12,4 | 10,7 |
| 16 urte baino gutxiago | 26,0 | 23,4 | 25,5 |
| Zehaztu gabe | 1,6 | 0,2 | 0,8 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Iturria: Siadeco 2018

Amaitutako ikasketak biztanleen jatorriarekin gurutzatuta, **deigarriena da atzerriko herrialdeetan jaiotakoen artean, %23k unibertsitate ikasketak dituela, Orion jaiotakoek baino are gehiago.** Ikasketa maila altuena Bigarren Hezkuntza dutenen mailan dago, ia, unibertsitate ikasketak egin dituztenena, atzerritarren artean.

57. Taula
Amaitutako ikasketak, jaiolekuaren arabera (%)

| | Orio | Gipuzkoako beste udalerrri bat | E.A.E. edo Nafarroa | Espainiako estatua | Beste herrialde bat | Zehaztu gabe | Guztira |
|--------------------------------|--------------|--------------------------------------|---------------------------|-----------------------|---------------------------|-----------------|--------------|
| Alfabetatu gabea | 0,3 | 0,7 | 0,0 | 2,6 | 0,0 | 0,0 | 0,5 |
| Derrigorrezkoa, amaitu gabe | 3,6 | 3,1 | 2,4 | 6,6 | 4,9 | 0,0 | 3,7 |
| Derrigorrezkoak, amaituta | 16,2 | 18,7 | 4,9 | 36,8 | 14,8 | 33,3 | 17,7 |
| Bigarren hezkuntza, amaituta | 9,5 | 10,7 | 7,3 | 15,8 | 25,4 | 0,0 | 11,7 |
| LH I/ Erdiko mailakoa amaituta | 6,4 | 12,1 | 12,2 | 9,2 | 6,6 | 16,7 | 8,2 |
| LH II/Goi mailakoa amaituta | 9,6 | 18,0 | 7,3 | 7,9 | 9,8 | 0,0 | 11,5 |
| Un. Erdi-mail. amaituta | 8,4 | 11,4 | 17,1 | 2,6 | 13,1 | 16,7 | 9,6 |
| Un. Goi-mail. amaituta | 7,8 | 14,2 | 29,3 | 14,5 | 9,8 | 0,0 | 10,7 |
| 16 urte baino gutxiago | 37,8 | 10,0 | 19,5 | 3,9 | 12,3 | 33,3 | 25,5 |
| Zehaztu gabe | 0,5 | 1,0 | 0,0 | 0,0 | 3,3 | 0,0 | 0,8 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Iturria: Siadeco 2018

Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan, Lanbide Heziketan edo Unibertsitatean dabilzan ikasleen artean (6-25 urte), badira eskola atzerapena edo eskolan integratzeko arazoak dituztenak. **Nabarmentzekoa da 6-16 urte artekoen %3,1ek “bestelako arazo larriak” dituela.** Ondorengoak dira elkarrizketatuek aipatutako “bestelako” arazo horietako batzuk: gaitasun handia, arreta falta, hitz egiteko zailtasunak eta dislexia.

58. Taula
Hezkuntzan arazoak dituzten haur eta gazteak (%)

| | Urte beteko eskola atzerapena | Bi urte edo +ko eskola atzerapena | Gaitzespena | Bestelako arazo larriak | Guztira |
|------------|-------------------------------------|-----------------------------------------|-------------|----------------------------|---------|
| 6-16 urte | 0,0 | 2,6 | 0,0 | 0,0 | 0,5 |
| 17-25 urte | 2,4 | 6,6 | 4,9 | 0,0 | 3,7 |

Iturria: Siadeco 2018

05_2.5 Osasuna eta mendekotasuna

Norberak antzematen duen beharra kontuan hartuta, lagineko biztanleen %7,6k du hirugarren pertsonen mendekotasuna, eguneroko bizitzako jarduera bat, gutxienez, aurrera eramateko. Sexuari dagokionez, emakumeen artean altuagoa da ehuneko hori. Adin-tarteen arabera, 61-70 urte artekoen %21,1ek eta 70 urtetik gorakoen %36,4k du hirugarren pertsonen mendekotasuna.

59. Taula
Hirugarrenen mendekotasuna duten pertsonak,
eguneroko bizitzako jarduera bat gutxienez garatzeko (%)

| | Gizonezkoa | Emakumezkoa | Guztira |
|----------------|--------------|--------------|--------------|
| Bai | 6,9 | 8,6 | 7,6 |
| Ez | 93,1 | 91,4 | 92,4 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Iturria: Siadeco 2018

60. Taula
Hirugarrenen mendekotasuna duten pertsonak, adin-tarteen arabera (%)

| | <6 urte | 6-16 urte | 17-25 urte | 26-40 urte | 41-50 urte | 51-60 urte | 61-70 urte | >70 urte | Guztira |
|-----|---------|-----------|------------|------------|------------|------------|------------|----------|---------|
| Bai | 0,0 | 1,0 | 2,3 | 2,0 | 3,6 | 8,0 | 21,1 | 36,4 | 7,6 |

Iturria: Siadeco 2018

Mendekotasuna duten pertsona horien %3,3k ez du baloraziorik eskatu, edo ez du mendekotasun-maila ezagutzen. **Mendekotasuna aitortu zaienen artean, lehen maila da ugariena.** Sexuari erreparatuta, aitortutako mendekotasuna duten emakumeak gehiago dira, oro har. II. maila aitortua dutenen artean soilik dago gizonezko gehiago.

61. Taula
Mendekotasuna duten pertsonen aitortutako mendekotasun-maila,
sexuaren arabera (%)

| | Gizonezkoa | Emakumezkoa | Guztira |
|----------------------------------------|--------------|--------------|--------------|
| I. maila edo mendekotasun moderatua | 1,4 | 1,9 | 1,8 |
| II. maila edo mendekotasun larria | 1,6 | 1,0 | 1,3 |
| III. maila edo mendekotasun oso larria | 1,2 | 1,4 | 1,3 |
| Ez du ezagutzen/ez du eskatu | 2,6 | 4,2 | 3,3 |
| Ez dagokio | 93,1 | 91,4 | 92,4 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Iturria: Siadeco 2018

Lagineko biztanleei aitortu zaien mendekotasun maila eta euren familia-taldea gurutzatuta, agerian gelditzen da egoera horren eragina. Izan ere, **III. mendekotasun maila aitortua duen inor ez da bakarrik bizi**. Gehienak seme-alabarik gabeko bikoteetan, eta batez ere, beste familia-taldeetan bizi dira, haiek zaintzeko ardura duten senide edo bestelako pertsonekin.

62. Taula
Mendekotasuna duten pertsonen aitortutako mendekotasun maila,
familia-talde motaren arabera (%)

| | Ez da familia-taldea | Seme-alabarik gabeko senar-emazteak/bikotea | Seme-alabadun senar-emazteak/bikotea | Seme-alabadun aita/ama | Beste familia-talde bat | Pertsona bakarra | Guztira |
|----------------------------------------|----------------------|---------------------------------------------|--------------------------------------|------------------------|-------------------------|------------------|--------------|
| I. maila edo mendekotasun moderatua | 0 | 4,5 | 0,6 | 3,6 | 2,1 | 4,9 | 1,8 |
| II. maila edo mendekotasun larria | 0 | 1,5 | 0,6 | 6,0 | 2,1 | 1,6 | 1,3 |
| III. maila edo mendekotasun oso larria | 0 | 3,0 | 0,3 | 2,4 | 5,2 | 0 | 1,3 |
| Ez du ezagutzen/ez du eskatu | 0 | 6,9 | 1,7 | 3,6 | 4,1 | 9,8 | 3,3 |
| Ez dagokio | 100 | 84,2 | 96,9 | 84,5 | 86,6 | 83,6 | 92,4 |
| Guztira | 100 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Iturria: Siadeco 2018

05_2.6 Harreman sozialekin lotutako arazoak

Gutxiengo dira harreman sozialekin lotutako arazoak jasan dituztenak, lagineko biztanleen artean. Arazo horien artean, ohikoenak familia banantzeak (%3) eta bakardadea edo tristura (%2,6) dira. Lehenengoek gehiago eragiten diete gizonezkoei, eta bigarrenak emakumezkoiei.

Arazoak adin-tartearen arabera aztertuz gero, nabarmentzekoa **da familia banantzeak 26-40 urtekoen artean dutela eraginik handiena (%6)**, eta **bakardadeak eta tristurak, 70 urtetik gorakoetan (%9)**. Sexua eta adina kontuan hartuta, lehenengoak migrazioarekin lotura eduki dezake, eta bigarrenak adinarekin lotutako arazo eta egoerekin.

63. Taula
Harreman sozialekin lotutako arazoak, sexuaren arabera (%)

| | Gizonezkoa | Emakumezkoa | Guztira |
|---------------------------------------|--------------|--------------|--------------|
| Familia banantzeak | 3,5 | 2,6 | 3,0 |
| Bakardadea, tristezia | 1,9 | 3,5 | 2,6 |
| Arreta eskasa familian | 0,4 | 0,3 | 0,3 |
| Tratu txarrak, erasoak edo indarkeria | 0,2 | 0,3 | 0,3 |
| Ez | 94,0 | 93,2 | 93,8 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Iturria: Siadeco 2018

64. Taula
Harreman sozialekin lotutako arazoak, adin-tartearen arabera (%)

| | <6 urte | 6-16 urte | 17-25 urte | 26-40 urte | 41-50 urte | 51-60 urte | 61-70 urte | >70 urte | Guztira |
|---------------------------------------|------------|------------|--------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|
| Familia banantzeak | 0,9 | 1,6 | 3,5 | 6,0 | 3,6 | 3,6 | 1,1 | 0 | 3,0 |
| Bakardadea, tristezia | 0 | 0 | 1,2 | 2,0 | 2,6 | 3,6 | 4,4 | 9,1 | 2,6 |
| Arreta eskasa familian | 0 | 0 | 0 | ,8 | 0,5 | 0 | 0 | 0,8 | 0,3 |
| Tratu txarrak, erasoak edo indarkeria | 0 | 0,5 | 1,2 | | 0 | 0,7 | 0 | 0 | 0,3 |
| Ez | 99,1 | 97,9 | 94,2 | 91,2 | 93,2 | 92,0 | 94,4 | 90,1 | 93,8 |
| Guztira | 100 | 100 | 100,0 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

Iturria: Siadeco 2018

Edonola ere, harreman sozialekin lotuta Orioko biztanleengan, orokorrean, eragin gehien duen arazoa gaitzespena da, arrazoi ezberdinengatik: generoa, jatorri soziala, geografikoa, etnia, kultura, hizkuntza, erlijioa etab. Laginekoko biztanleen **%3,1ek jasan ditu gaitzespen arazo larriak, eta arinagoak beste %1,2k**. Sexuari dagokionez, emakumeek gehiago jasaten dute gaitzespena.

65. Taula
Gaitzespen arazoak jasan dituzten pertsonak, sexuaren arabera (%)

| | Gizonezkoa | Emakumezkoa | Guztira |
|-----------------------|--------------|--------------|--------------|
| Bai | 2,6 | 3,5 | 3,1 |
| Bai, baina larriak ez | 0,9 | 1,6 | 1,2 |
| Ez | 96,5 | 94,9 | 95,8 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Iturria: Siadeco 2018

Arrazoi ezberdinek eragin dezakete gaitzespena, baina oro har, lotura estua eduki ohi du jatorriarekin. Agerian gelditzen da hori, hain zuzen ere, gaitzespen arazoak dituzten biztanleak jaiolekuaren arabera aztertuta. **Atzerriko herrialdeetan jaiotakoak %16,4k jasan ditu gaitzespen arazoak, eta estatuko beste lurraldeetakoak ia %4k.** Segida hori jarraituz, EAEn edo Nafarroan jaiotakoek gaitzespen arazo gehiago jasan dituzte, Orion edo Gipuzkoan jaiotakoek baino. Kasu horretan, nolana ere, arazo arinak izaten dira sarritan.


66. Taula
Gaitzespen arazoak jasan dituzten pertsonak, jaiolekuaren arabera (%)

| | Orio | Gipuzkoako beste udalerrri bat | E.A.E. edo Nafarroa | Espainiako estatua | Beste herrialde bat | Zehaztu gabe | Guztira |
|-----------------------|------------|--------------------------------|---------------------|--------------------|---------------------|--------------|--------------|
| Bai | 1,4 | 1 | 2,4 | 3,9 | 16,4 | 0 | 3,1 |
| Bai, baina larriak ez | 0,6 | 0 | 4,9 | 3,9 | 4,1 | 0 | 1,2 |
| Ez | 98 | 99 | 92,7 | 92,1 | 79,5 | 100 | 95,8 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100,0 |

Iturria: Siadeco 2018

31. Grafikoa

Gaitzespen arazoak jasan dituzten pertsonak, jaiolekuaren arabera(%)



Iturria: Siadeco 2018

Gaitzespen-arazoen arrazoietan sakontzeko, inkesta erantzun duten elkarrizketatuek gaiaren inguruan egindako zenbait iruzkin bilduta datoz jarraian, adierazpenak egin dituztenen jatorria zehaztuta. Alde handia dago gaitzespenaren arrazoietan, multzo batetik bestera.

- Atzerriko herrialdeetan jaiotakoak:

“Integratzeko garaian jasan dut gaitzespena”

“Oso arrazistak dira”

- Estatuko beste lurraldeetan jaiotakoak:

“Euskara ez jakiteagatik sentitu dut gaitzespena”

“Senarra Guardia Zibila izan zen gaztetan, eta herritarrek kontuan izan dute beti”

- Gipuzkoan edo Orion bertan jaiotakoak:

“Politikagatik sentitu dut gaitzespena”


“Semea Hondarribian dugu arraunean, eta udaran, bizilagunek ez digute hitz egiten”

05_2.7 Gizarte entitateetan parte hartzea

Udalerriko elkarte edo talde ezberdinetako parte hartzeak harreman sozialen inguruko beste ikuspuntu bat eman dezake. Oro har, parte hartzea txikia da, lagineko biztanleen **laurden batek baino ez baitu parte hartzen elkarte edo taldeetan**. Horien erdia, gainera, kirol elkarte edo jardueretan aritzen da. Sexuari erreparatuta, **kirol elkarteetan gizonezkoen parte hartzea emakumezkoenaren bikoitza da**. Bestelako elkarte edo taldeetan, aldiz, emakumeen parte hartzeak gizonezkoena gainditzen du.

32. Grafikoa

Gizarte entitateetan parte hartzea (%)



Iturria: Siadeco 2018

33. Grafikoa

Gizarte entitateetan parte hartzea, sexuaren arabera (%)



Iturria: Siadeco 2018

Gizarte entitateetako parte hartzea adin-tarteen arabera aztertuta, **agerian gelditzen da haurrak eta gazteak direla kirolean gehien aritzen direnak: 6-25 urte artekoak. Bestelako elkarte edo taldeetan, ordea, 60 urtetik gorakoak dira gehien parte hartzen dutenak.** Tarteko adinetan elkarte eta taldeetako parte hartzea nabarmen baxuagoa da.

Jaiolekuari dagokionez, **kirol elkarte eta taldeetan Orion jaiotakoak dira nagusi.** Adinak eragina du datu horretan, haurrak baitira parte hartzaile horietako asko. Bestelako elkarteetan orekatuago dago parte hartzea, baina Orion jaio ez direnak bertakoak baino gehiago dira.

67. Taula
Gizarte entitatearen batean parte hartzea, adin-tartearen arabera (%)

| | <6 urte | 6-16 urte | 17-25 urte | 26-40 urte | 41-50 urte | 51-60 urte | 61-70 urte | >70 urte | Guztira |
|------------------------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| Kirol elkarte edo klubak | 2,8 | 28,1 | 18,6 | 11,2 | 10,4 | 8,8 | 10,0 | 2,5 | 12,3 |
| Bestelako elkarte do taldeak | 0,9 | 3,6 | 5,8 | 14,0 | 17,2 | 12,4 | 30,0 | 21,5 | 12,8 |
| Ez du parte hartzean | 96,3 | 68,2 | 75,6 | 74,8 | 72,4 | 78,8 | 60,0 | 76,0 | 74,9 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Iturria: Siadeco 2018

68. Taula
Gizarte entitatearen batean parte hartzea, jaiolekuaren arabera (%)

| | Orio | Gipuzkoako beste udalerri bat | E.A.E. edo Nafarroa | Espainiako estatua | Beste herrialde bat | Guztira |
|------------------------------|--------------|-------------------------------|---------------------|--------------------|---------------------|--------------|
| Kirol elkarte edo klubak | 16,8 | 9,7 | 7,3 | 6,6 | 0,8 | 12,3 |
| Bestelako elkarte do taldeak | 11,5 | 13,8 | 22,0 | 15,8 | 13,1 | 12,8 |
| Ez du parte hartzean | 71,7 | 76,5 | 70,7 | 77,6 | 86,1 | 74,9 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Iturria: Siadeco 2018

05_2.8 Enplegua

Inkesta erantzun duten hamasei urtetik gorako biztanleen erdia baino gehiago lanean ari da, soldatapeko enplegu mugagabearekin edo aldi baterakoarekin (%47), edo norberaren kontura lan eginez (%7,8). %21,8k erretiroa hartua du eta %6,3 ikasten ari da, edo ordainsaririk gabeko lan esperientzia batean. **Hamasei urtetik gorakoek %9,9 langabezian dago.**

Lan egoerak sexuaren arabera aztertuta, nabarmentzekoa da **lanean ari direnen artean, gizonezkoen ehunekoa handiagoa** dela, hiru puntu inguru, soldatapean ari direnen artean nahiz euren kontura ari direnen artean. **Langabezian dauden artean gehiago dira emakumeak, baina gehiago dira, era berean, ikasten ari direnen, etxeaz arduratzen direnen eta bestelako langabeen artean ere.**

Adin-tarteari dagokionez, 26-40 urtekoen artean, 5etik 4 lanean ari da, bere kontura edo soldatapeko kontratuarekin, eta %10,4 langabezian. Aldiz, **azpimarratzekoa da 41-50 adin-tartean lau puntu altuagoa dela langabezian dauden ehunekoa.** 17-25 urte artekoen %58 ikasten ari da, laurdena inguru lanean eta %11,6 langabezian.

69. Taula
16 urtetik gorako herritarren lan-egoera, sexuaren eta adin-tartearen arabera (%)

| | Sexua | | Adina | | | | | | Guztira |
|----------------------------------------------------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| | Gizonezkoa | Emakumezkoa | 17-25 urte | 26-40 urte | 41-50 urte | 51-60 urte | 61-70 urte | >70 urte | |
| Bere kontura egiten du lan | 9,8 | 6,2 | 1,2 | 10,0 | 11,5 | 11,7 | 3,3 | 0,8 | 7,8 |
| Familia-negozioan egiten du lan | 1,2 | 0,9 | 2,3 | 1,2 | 0 | 2,2 | 1,1 | 0 | 1,0 |
| Soldatapeko enplegu mugagabea edo aldi baterakoa dauka | 48,8 | 45,8 | 22,1 | 70,8 | 66,7 | 56,9 | 12,2 | 0 | 47,1 |
| Aldi baterako baja gaixotasunagatik edo amatasunagatik | 0,5 | 2,7 | 1,2 | 3,6 | 1,6 | 1,5 | 0 | 0 | 1,7 |
| Etxeaz arduratzen da | 0,2 | 2,3 | 0 | 0 | 1,0 | 2,2 | 3,3 | 3,3 | 1,4 |
| Ikasketak, prestakuntza, lan esperientzia ordaindu gabea | 6,0 | 6,8 | 58,1 | 1,6 | 0,5 | 0 | 0 | 0 | 6,3 |
| Erretiratu, erretiro aurreratua, ez da gehiago ari | 21,9 | 21,4 | 0 | 0,4 | 0 | 8,0 | 71,1 | 95,0 | 21,8 |
| Baliaezintasuna/ezgaitasuna | 1,2 | 0,9 | 1,2 | 0,4 | 1,6 | 0,7 | 2,2 | 0,8 | 1,0 |
| Langabezian | 9,3 | 10,3 | 11,6 | 10,4 | 14,6 | 12,4 | 6,7 | 0 | 9,9 |
| Bestelako langabeak | 0,7 | 1,1 | 1,2 | 0,8 | 1,6 | 1,5 | 0 | 0 | 0,9 |
| Zaintzaile ez profesionala | 0 | 0,5 | 0 | 0 | 0,5 | 0,7 | 0 | 0 | 0,2 |
| Zehaztu gabe | 0,5 | 1,1 | 1,2 | 0,8 | 0,5 | 2,2 | 0 | 0 | 0,8 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Iturria: Siadeco 2018

34. Grafikoa
Langabezian dauden 16 urtetik gorako biztanleak, adin-tarteen arabera(%)



Iturria: Siadeco, 2018

Lanean ari direnen artean, %63k iraupen mugagabeko kontratua dauka, edo kooperatibista da, %16,6k aldi baterako kontratua dauka eta %13,5 autonomoa da. Sexuaren arabera erreparatuta, nabarmentzekoa **da iraupen mugagabeko kontratua duten gizonezkoen ehunekoak 5 puntu altuagoa dela, emakumezkoena baino**. Aldiz, **aldi baterako kontratuei dagokienez, kontrakoa gertatzen da: emakumeen ia %21ek dauka, eta gizonezkoen %16,2k**. Obra edo zerbitzuko kontratuen kasuan ere, emakumeen %2k du horrelako kontratu bat eta gizonezkoen %1,2k.

Adinari dagokionez, lanean ari diren 17-25 urte arteko gazteen %56,5ek aldi baterako kontratua dauka, eta %34,8k iraupen mugagabekoa. Adinean aurrera egin ahala, iraupen mugagabeko kontratua dutenen ehunekoak gora egiten du. 61 urtetik aurrera, aldiz, behera egiten du berriro.


70. Taula
Lanean ari diren herritarren lan kontratua, sexuaren eta adin-tartearen arabera (%)

| | Sexua | | Adina | | | | | | Guztira |
|------------------------------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| | Gizonezkoa | Emakumezkoa | 17-25 urte | 26-40 urte | 41-50 urte | 51-60 urte | 61-70 urte | >70 urte | |
| Iraupen mugagabekoa/Kooperatibista | 65,2 | 60,2 | 34,8 | 61,7 | 66,0 | 69,7 | 53,3 | 0,0 | 63,0 |
| Aldi baterakoa | 16,2 | 20,9 | 56,5 | 23,8 | 14,4 | 6,1 | 13,3 | 0,0 | 18,6 |
| Obra edo zerbitzukoa | 1,2 | 2,0 | 0,0 | 1,9 | 2,6 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 1,6 |
| Bestelakoa | 0,4 | 0,8 | 0,0 | 0,5 | 0,7 | 1,0 | 0,0 | 0,0 | 0,6 |
| Kontratu gabea | 0,0 | 0,4 | 0,0 | 0,5 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,2 |
| Enpresaria | 0,0 | 0,4 | 0,0 | 0,0 | 0,7 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,2 |
| Autonomoa | 16,2 | 11,1 | 8,7 | 11,2 | 13,7 | 17,2 | 20,0 | 100 | 13,5 |
| Zehaztu gabe | 0,8 | 4,1 | 0 | ,5 | 2,0 | 6,1 | 13,3 | 0,0 | 2,4 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Iturria: Siadeco 2018

35. Grafikoa

Aldi baterako lan kontratuak (%)



Iturria: Siadeco, 2018

05_2.9 Langabezia

Inkesta erantzun duten 16 urtetik gorako biztanleen %9,9 izan da langabezia dagoela adierazi duena. **Langabe horien artean, 5etik 4 baino gehiago da lan bila ari dena**, modu aktiboan. Horietako gehienak, ia erdiak, urte betez baino gutxiagoz. Ia laurdenak, alabaina, bi urte baino gehiago daramatza lan bila. **Langabezia dauden %18,4k adierazi du ez dela lan bila ari**, arrazoi ezberdinak direla medio.

Langabezia dauden 16 urtetik gorako biztanleen %32,2 da azken urtean lan-jardueraren bat egin duena. Horien erdia baino gehiago 9 hilabetez edo gehiagoz aritu da lanean.

71. Taula
Lan bila ari diren langabeak (%)

| | |
|----------------------------|--------------|
| Bai | 81,6 |
| Bai, urte 1 baino gutxiago | 47,1 |
| Bai, 1-2 urte artean | 10,3 |
| Bai, 2 urte baino gehiago | 24,1 |
| Ez / Zehaztu gabe | 18,4 |
| Guztira | 100,0 |

Iturria: Siadeco 2018


72. Taula
Azken 12 hilabeteetan lan-jardueraren
bat egin duten langabeak (%)

| | |
|-------------------|--------------|
| Bai | 32,2 |
| 1-4 hilabete | 29,6 |
| 5-8 hilabete | 14,8 |
| 9-12 hilabete | 55,6 |
| Ez / Zehaztu gabe | 78,2 |
| Guztira | 100,0 |

Iturria: Siadeco 2018

Inestako emaitzetan oinarrituta, langabezia-tasa %12koa da, Lanbidek Orori, Urola Kostari, Gipuzkoari eta EAERI dagokionez emandako azken datuak baino altuagoa (Txosteneko 3.2 atalean bilduta daude langabezia-tasari dagokiozkion datuak). Laginak eduki dezakeen akats-tartea kontuan hartu beharra dago, beti ere.

36. Grafikoa
Langabezia-tasa (%)



Iturria: Siadeco, 2018

05_2.10 Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta

Inkesta erantzun duten elkarrizketatuen arabera, **biztanleen %1,9k jasotzen du Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta**. Lanbidek Orioren inguruan ematen duen datuarekin bat dator ehunekoa.

06

Pobrezia,
desberdintasuna eta
gizarte bazterketa,
Oriko eragileen
ikuspuntutik



06_1

Herriak jasandako aldaketa handiak

06_1.1 Biztanleria eta biztanle-dentsitatea

Ikerketarako elkarrizketatutako eragileek baieztatu dute **Oriok aldaketa handiak jasan dituela, urte gutxiko epean**. Aldaketa kuantitatiboa nabarmena izan da, 2014an, zortzi urte lehenago baino 1.000 biztanle gehiago baitzituen Oriok. Gainera, herri “bildua” dela, etxebizitzak nahiko kontzentratuta dituela azaldu dute. Ez dagoela apenas baserririk, gehiago direla txaletak, eta landa-etxeak ere egin direla. Hortaz, biztanleriaren hazkundearekin lotuta, **biztanle-dentsitatea (biz./km²) ere asko handitu dela** azaldu dute (471,7koa zen 2006an, eta 617,1koa gaur egun). Egoera horretan, **oriotarrek “bizi-kalitatea” galdu dutela** adierazi duenik ere bada.

“Duela zenbait urte, Orion denok ezagutzen genuen elkar”, azpimarratu du solaskideetako batek. Herri txikiak horren berezko duten ezaugarri hori, Orion galtzen ari dela uste dute eragileek. Batez ere, azken urteetan, **Oriok inguruko udalerrietako jende asko erakarri duelako, udalerriaren kokapen onaren eraginez, eta Donostiarekin edo Zarautzekin alderatuta, etxebizitzaren prezioa merkeagoa delako**.

06_1.2 Etxebizitza berriak eta barne migrazioak

Ezbairik gabe, etxebizitza ugari eraiki dira Orion, azken urteetan. Bereziki, herrigunetik A8 autobideko zubira, eta bertatik hondartza aldera. **2009tik 2010era, adibidez, hazkunde nabarmena jasan zuen etxebizitza berriak eraikitze baimenen kopuruak**. 1.000 biztanleko 18 baimen gehiago eman ziren (1.000 biztanleko 57,5 etxebizitza-baimen, 2010ean). 2010ean bertan, aurreko bost urteetan amaitutako Babes Ofizialeko Etxebizitzen kopurua 1.000 biztanleko 10,5koa izan zen.

Baina eragileen arabera, azken urteotan eraikitako etxebizitza horiek ez dira Orioko herritarren beharrei erantzuteko eraiki. “Enpresa eraikitzaileei men egiten diete agintariak. Jaso dezaketen diruarekin itsutu egiten dira, baina ez dute pentsatzen gero etxebizitza horietara datozen herritar berri guzti horientzako zerbitzuak ere bermatu behar dituztela”, adierazi du solaskideetako batek.

Kasu batzuetan, etxebizitza horiek inguruko herrietatik joandako jendeak erosi edo alokatu ditu. Beste askotan, oriotarrek erosi dituzte, eta etxebizitza zaharrak alokairuan jarri. Edonola ere, **inguruko herrietako “jende gazte asko” Oriora bizitzera joaten ari dela** azpimarratu dute eragileek. Jende askorentzat, Orio “lotarako” herri bilakatu dela baieztatu du solaskideetako batek: “Ondo komunikatuta dago, batez ere, autopistarako sarbide berria eraiki zutenetik. Jendeak herritik kanpo lan egiten du, baina 10 minutura”.

06_1.3 Etorkinen hazkundea

Lurraldeko jendea soilik ez, **etorkinak ere erakarri ditu Oriok. Gero eta gehiago, azken urteetan. Batzuk aspaldi iritsi ziren, eta herrian integratuta daude.** Lehen senegaldarrak, adibidez, itsasoan lan egitera etorri ziren, eta gainera “fama” ona dute arrantzaleen artean, solaskideen arabera. Magrebtarren kolektiboa ere aspaldikoa da, lehen familiak duela 30 bat urte iritsi baitziren zeramika fabrian lan egitera. Gaur egun, meskita bat daukate Orion. Integrazioaren adibide, gaur egun bikote mistoak ere badaudela, bertakoen eta atzerritarren artekoak.

Alabaina, azken hamarkadan herrialde ezberdinetako beste etorkin ugari iritsi dira, eta **integrazioari dagokionez, azken aldian zailtasun handiagoak egon direla** uste dute eragileek. Kasu batzuetan “ghetto” modukoak sortu direla, gainerako herritarrekin harremanik ez duten atzerritarren talde itxiak. Haurren eskolatzeari dagokionez, adibidez, etorkin gehienek seme-alabak ikastetxe publikora bidaltzen dituztela, eta bertakoek Ikastolara.

06_1.4 Lan-aukera eskasak

Arrantzan edo zeramika fabrian lan egitera iritsi ziren, hortaz, lehen etorkinak. Gaur egun, ordea, arrantzak garai bateko indarra galdu du, eta zeramika fabrika itxita dago. Zenbait altzari fabrika ere eduki zituen Oriok, baina manufaktura-industriak beherakada nabarmena jasan du udalerrian, azken urteotan, sortzen dituen enpleguei dagokienez. Horren, eta udalaren kokapen eta komunikazio egokien eraginez, **Orioko biztanleria landunaren ia %80k Oriotik kanpo egiten du lan.**

Arrantzari dagokionez, azpimarratu hoge urteko epean hamabi puntu galdu dituela sektorean ari den biztanleria okupatuaren ehunekoak. Duela 40-50 urte, ordea, itsasoaren inguruko jardueretan lan egiten zuten oriotarrak askoz gehiago zirela baieztatu dute eragileek. Ez gizonezkoak bakarrik, emakumeak ere bai, saregile lanetan, edo kontserbagintzan, adibidez.

60-70eko hamarkadan itsasoan diru asko egiten zela azaldu dute solaskideek: “Arrantzaleek, urte beteko soldatarekin, etxebizitza erosten zuten”. Hori dela eta, **inbertsioak egin dituen jendea dela aipatu dute:** hondartzan etxebizitza erosi eta herrigunekoa alokairuan jarri, etab. “Arrantzaleen pentsioak ez dira altuak izaten, baina ondasunak edukitzen dituzte”, adierazi du solaskideetako batek. Horrek, besteak beste, pentsio-osagarriak jasotzeko eragozpenak ekar ditzake.

06_2

Kolektibo zaugarrienak

06_2.1 Etorkinak

“Pobrezian eta egoera zailetan bizi den etorkin asko dago Orion”, baieztatu du solaskideetako batek. Caritasen laguntza jasotzen dutenen artean, hain zuzen, %70 da jatorri atzerritarra duena. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dutenen artean ere, bertakoak baino gehiago dira atzerritarrak. Dena den, **legez kanpoko etorkinen kasuak dira larrienak**, amaierarik gabeko korapiloetan, atera ezin izateko bukleetan bizi baitira: “Etxeko kontraturik gabe ezin dute paperik egin, baina paperik gabe ezin dute kontraturik sinatu etab. Lanarekin berdin. Paperik ez dutenez ez diete lan kontraturik egiten, eta lan kontraturik gabe, ezin dute paperik egin”.

Egoera erregularizatuta ere, lanik lortu ezean, DBE izaten da familia askoren sostengu. Baina **eragileen ustez, prestazioek ez dute bizimodu duin bat edukitzea ahalbidetzen**: “DBEak ez du bizitzeko ematen. Osatu egin beharra dago, kasu askotan, ezkutuko ekonomian murgilduz”. Emakumeak, adibidez, sarritan aritzen dira garbiketan edo etxez-etxe laguntzan, kontraturik gabe. Gizonezkoentzat, aldiz, zailagoa izaten da kontraturik gabeko lanak topatzea.

Egoera aldrebes horietan egonda ere, etorkinak haien herrialdeetan baino hobeto bizi direla adierazi du solaskideetako batek. Horregatik geratzen direla: “Hezkuntza eta osasun publikoak dituzte”. **Prestazio sozialek “dei-efektua” eragin dutela oso zabalduta dago gizartean, Orion ere bai**. Ideia horrekiko kritiko izan dira, dena den, zenbait solaskide: “Jendeak oso informazio gutxi dauka diru-laguntzen eta prestazioen inguruan. Horrek aurreiritziak eta arrazismoa elikatzen ditu”.

Etorkinek bertakoekiko daukaten desabantaila handienetako bat “koltxoia” dela azpimarratu dute eragileek. Bertakoen artean, beharra dagoenean, familia-babesak funtzionatzen duela eta etorkinek ez dutela halakorik: “Kasu gehienetan beste atzerritar batzuek osatzen dute haien sare soziala, eta hori dela eta, zailagoa da haientzat elkarri lagundu ahal izatea”.

06_2.2 Adinekoak

Oriok biztanleria gaztea badu ere, 75 eta 80 urtetik gorako biztanleriak gora egin du azken urteetan. Eguneko Zentroan, adibidez, gero eta gehiago dira 80tik gorako erabiltzaileak. Baita gizonetako ere. Adinekoen kolektiboan, beraz, badira behar sozialak. Bereziki, **alargunen kasua nabarmendu dute eragileek**: “Emakume alargunen pentsioak baino altuagoak diren DBEak jasotzen dituen jende asko dago”.

Pentsio baxuak direla eta, horiek kobratuta ere, justu samar bizi den jendea dagoela baieztatu dute solaskideek: “Pentsioetan alde handiak daude. Niretzat harrigarria da adineko zenbat jende iristen den justu, pentsioa edukita ere. Gogorra da ez dakit zenbat urtez lan egin eta gero, dirua begiratzuz, kontrolatuz bizi behar izatea”. Solaskideetako batek azaldu du kasu askotan adinekoek ezin dutela pentsio-osagarririk edo bestelako diru-laguntzarik jaso, ondasunak dituztelako: “Badago jendea txaletetan bizi dena, eta hilabete amaierara heltzeko larri ibiltzen dena”. Aurrezkietatik soilik bizi direnen kasuak ere badaude Orion.

Mendekotasuna da adinekoen beste arazo handienetako bat. Mendekotasun fisikoa, baina kasu askotan, kognitiboa: alzheimerria, dementziak etab. Horiekin lotuta, normala da antsietatea edo depresioa ere agertzea. “Batez ere dementziaren lehen faseetan, kontziente direnean, konturatzen direlako buruak ez diela beti erantzuten”, azaldu du solaskideetako batek. Mendekotasun fisikoarekin lotuta, Oriok oztopo arkitektonikoekin erronka handi bat daukala uste dute eragileek: “Etxeak oso zaharrituta daude, ez daude egokituta”. Batez ere, **igogailuen falta nabarmendu dute**.

Eguneko Zentroa dago Orion, baina adinekoen egoitzarik ez. “Urtetan” eskatu izan dutela adierazi dute eragileek, herrian bertan edukitzea askoz erosoagoa litzatekeelako. Eguneko Zentroan, erabiltzaileek beharrak “asetuta” eduki ohi dituztela adierazi dute. Baina izan direla **kasu isolatuak: kuotak ordaindu ez dituzten erabiltzaileenak, edo higiene falta nabarmena dutenenak**.

06_2.3 Guraso bakarrek

Beste kolektibo ahul bat ere nabarmendu dute solaskideek: guraso bakarreko familiena, **bereziki ama bakarrena**. “Bertakoak direnek abantaila txiki bat edukitzen dute, senideen babesarena. Etorkinek, aldiz, ez dute hori izaten, eta oso egoera konplikatuetan bizi dira, beste ama bakarrekin eta haurrekin bizitzen etab.”, azaldu du solaskideetako batek. Beste faktore batek are gehiago korapila dezake egoera: haurrek behar bereziak edukitzea: “Mendekotasun handia eragiten die ama horiei”.

06_3

Gizarte Zerbitzuen Iana

Gizarte Zerbitzuen arloan Oriko Udalak gabeziak dituela agerian gelditu da ikerketan. Oro har, adinekoen kolektiboari zuzendutako zerbitzu eta prestazioetara bideratutako lana egiten duela, eta egiteko hori ondo kudeatzen duela onartu dute eragileek. Baina hori baino askoz gehiago behar lukeela ere bai. Alde horretatik, jarrera kritikoa izan da nagusi.

Eragileek azpimarratu dute Oriko Gizarte Zerbitzuak ez direla benetako “harrera-leihatila” bat: “Denerako laguntzen duen leihatila izan behar lukete Gizarte Zerbitzuek. Nik ulertzen dut gauza batzuk aldundiak kudeatzen dituela, beste batzuk Lanbidek etab. Baina ahal den neurrian, harrera herrian bertan egin beharra dago, eta gero akonpainamendua eskaini”. Prestazioak ematea ez baita laguntzeko modu bakarra: “Paperak betetzeko arazo handiak ditu jendeak, adibidez. Inpresok ulertzeko, izapideak betetzeko... Esan nahi dut modu askotan lagundu daitekeela”.

Egoera larri askori “babes komunitarioak” irtenbidea ematen diola adierazi du solaskideetako batek. Alegia, familia-babesak, kasu askotan. Baina babes horrek askoz egituratuagoa izan behar duela eta administrazio publikoek bultzatu behar dutela ere uste du: “Horretarako administrazio irekiago bat behar da, oso burokratikoak baita. Larrialdi sozialetarako kanal zuzenagoak falta dira”.

Behar sozialetara baliabide gehiago bideratu behar direla azpimarratu du solaskideetako batek: “Dirua egon badago, baina nahi denerako bideratzen da: hor daude Bisiguaren Festa etab.”. Beste batek azpimarratu du udal aurrekontuen soberakinetan gizarte zerbitzuetako dirua geratzen dela: “Harrigarria iruditzen zait. Aurreikusitako partida, behintzat, baliatu beharko litzateke”. Baina batez ere, **zerbitzua berritzeko eta eguneratzeko beharra azpimarratu dute**: “Ezin da orain dela 30 urteko funtzionamenduarekin jarraitu. Berritu egin beharra dago”.

Gizarte langile berria kontratatzeko prozesuan dago udala, eta eragileek zenbait eskaera luzatu nahi izan dizkiote: “Irekiagoa izatea, gertutasun eta atentzio handiagoa eskaintzea”. Orioko Udalak irtenbidea eman behar lioke, beraz, Gizarte Zerbitzuetan duen hutsuneari.

Etxebizitza-sozialen beharra

Adinekoentzako pisu-tutelatuak ditu Orioko Udalak. Baina horrez gain, **etxebizitza-sozialen beharra** azpimarratu dute zenbait solaskidek. Kasu larrietan irtenbideak eskaintzeko: “Emakume asko elkarrekin bizi dira, ezin dietelako 600-700 euroko alokairuei aurre egin. Bakoitzaren seme-alabekin bizi dira, kasu batzuetan. Hor arazoak sortzen dira DBE jasotzeko, erroldak begiratzen direlako, eta elkarrekin bizi direnez, senideak ez direla frogatu behar dutelako”.

Diru-sarreraren araberako alokairu sozialak irtenbide egokia izan daitezkeela uste dute zenbait solaskidek: “Nik uste aberatsen seme-alabei Babes Ofizialeko Etxebizitzak ematea baino ideia hobea dela behar duenari etxebizitza aukerak eskaintzea. Behar handi bat dago, zentzu horretan”. Alokairu sozialak eragileek onartutako beste arazo bati aurre egiteko ere balio dezake, gainera: **gazteek emantzipatzeko duten zailtasunari. Bizi duten lan prekarietatearekin lotu dute solaskideek**, hain zuzen ere: “Hor badago ezkutuko pobrezia bat, independizatu nahi eta ezin dutenena”.

06_4

Bereizketa ikastetxeetan

Oriko ikastetxeetan “segregaziorako” joera bat dagoela onartu dute eragileek: bertakoek seme-alabak Ikastolara bidaltzen dituztela, eta kanpokoek eskola publikora. Alabaina, eskola euskalduna Ikastola dela pentsatzeko joera pixkanaka aldatzen ari dela aipatu du solaskide batek, eta hori, Oriko kanpotik etorritako jende gaztearen eraginez izan dela.

Hala ere, gaur egun alde handia dago, oraindik, Ikastolara eta ikastetxe publikora joaten direnen jatorriari eta egoera sozioekonomikoari dagokionez. Eskola publikoan “justu samar” dabiltzan familia asko daudela adierazi dute eragileek. Datu esanguratsua da ikasleen bi heren bekaduna dela. Ikastolan ikasleen heren bat da bekaduna, gehien-gehienak, etorkinak: “Ez zaio inori aterik ixten. Barne beka sistema bat dago, arrazoi ekonomikoengatik inor matrikulatu gabe gera ez dadin”.

Ikastetxe publikoan nahiz Ikastolan, bietan detektatzen dituzte pobrezian edo egoera ahulean dauden familiak. Alde horretatik, **udaleko Gizarte Zerbitzuekin koordinazio handiago baten beharra azpimarratu dute**: “Aliatu izan behar genuke. Koordinazio bilerak egin, protokolo zehatzak planifikatu... Ikastetxeak esparru egokiak dira familien beharrak detektatzeko, eta prest gaude guri dagokigun rola jokatzeko”.

Irteeretan antzematen dituzte zailtasunak, batez ere, joan gabe geratzen diren ikasleak daudelako. Arropari dagokionez, familiek elkarri pasatzen diotela, edo Caritasen jasotzen dutela azaldu dute. “Etorkinek, beti ere”, zehaztu dute: “Bertakoak ez direlako laguntza eskatzera joaten”. Elikadurari dagokionez, hamaiketakoak azpimarratu dituzte, bertan ikusten direlako familien lehentasunak: “Irteerara joaten ez den haur batek bolleria ekar dezake, adibidez, edo bestelako produktu garestiak, ogitarteko arrunta beharrean”.

Integrazioari buruz, denetarik dagoela argitu dute. Familien kulturaren eta ohituren arabera asko aldatzen direla egoerak. Nolanahi ere, eskola kirolean eta bestelako **eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeak integrazioan asko laguntzen duela azpimarratu dute. Orokorrean, mutilek gehiago parte hartzen dutela baieztatu dute. Ondorioz, neskek baino harreman gehiago edukitzen dutela eskolaz kanpo.**

Jatorriaren arabera, joera ezberdinak egoten direla aipatu dute: “Hegoamerikarrei, adibidez, asko kostatzen zaie euskara ikastea. Baina eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen dute, eta ondo integratzen dira. Pakistandarrek, aldiz, segituan ikasten dute euskara, baina ez dute eskolaz kanpoko harremanik”. Marokoarren kasuan, aspaldi errotutako komunitatea direla adierazi dute.

Edonola ere, haurrak gurasoak baino azkarrago integratzen direla azpimarratu dute eragileek. Gurasoei gehiago kostatzen zaiela. Eta lehen hesia hizkuntza izaten dela: “Euskaraz baldin badakizu lana topatzeko aukera eduki dezkezu. Euskaraz ez dakitenek zailago dute dena”. Hizkuntzak harremanak “trabatu” egiten dituela uste du solaskideetako batek: “Ez dakizu oso ondo ulertu zaituen edo ez, eta alderantziz”.

Haurreskolan matrikulatu gabe geratzen direnak, atzerritarrak

Eskolaurreko adin-tarteari dagokionez, urtero-urtero izaten dira **Haurreskolan matrikulatu gabe geratzen diren haurrak, haien familiek ezin dutelako matrikula ordaindu. Gehien-gehienetan etorkinen familiak** izaten direla adierazi dute. Alternatiba San Nicolas hartzaindegia izaten da. Bertan ere, kuotak murrizteko eskaerak izaten dira, eta salbuespenak egiten dituzte. Oinarrizko elikagaiak ere eman izan dituzte bertan, kasu bakan batzuetan.

06_5**Harreman sozialak**

Harremanekin lotuta, behin eta berriro errepikatu den ideia da Oriok **“kultur-aniztasun” handia duela**, gaur egun. Horren argi ikusten ez dena da errealitate hori aberasgarria ote den, modu positiboan landu eta baliatzen ote den: **“Aniztasunarekin, errespetuarekin eta tolerantziarekin lotutako lan handi bat egin beharra dago**. Gizarteratze politikak landu behar direla uste dut, aisiaren eta eguneroko jardueren bitartez”.

Gazte kuadrillen artean, jatorri ezberdinetako etorkinen seme-alabek osatutako taldeak ikusten direla adierazi du solaskideetako batek: “Horrek esan nahi du zerbait gaizki egiten ari garela. Zergatik ez dira bertakoekin elkartzen?”. **Eragileek aitortu dute Orion integratzea ez dela lan erraza izaten**: “Kanpokoek esaten dute hasieran errezeloa nabaritzen dutela bertakoen partetik. Baina hori ez dute atzeritarrek soilik esaten, Andaluziako batek, eta batzuetan Lasarte-Oriako batek ere esan diezazuke”.

Bazterketa arrazoi izan daiteke jatorria, baina hizkuntza, politika edo kirola ere azpimarratu dituzte solaskideek, gaitzespen motibo gisa. “Herrietan harremanak oso intentsoak dira, onerako eta txarrerako. Diferentzia politikoak eta kulturalak zorrotz egiten dira”, azaldu du solaskideetako batek. Hizkuntzaren inguruko kezka nabarmendu du beste batek, baieztatuz Oriok berezko zuen beste ezaugarri bat galtzen ari dela: “Euskararen erabilerak behera egin du, bereziki 25-40 urtekoen artean. Hor udalak esku hartu beharko luke, Oriora bizitzera etorritakoei euskara ikasteko aukera eskainiz”.

Behar sozialei dagokienez, bertakoen artean horiek “ezkutatzeko” joera bat ere badagoela azpimarratu dute eragileek. “Klasismoa” aipatu dute: “Oriok daukana da herritarrek plantak egiten dituztela, dirua eduki edo ez, erakutsi egin behar dutela”. Inkestaren emaitzekin lotuta, norberaren egoerari buruzko pertzepzioen eta ikuspuntuaren arteko aldea ere azpimarratu dute eragileek: “Bertakoen artean, pobrezian bizi direnek ez dute inoiz onartuko. Hipokrisia sozial handia dago”. Bere burua pobretzat duen jende gutxi dagoela uste dute: “Gehienek esango dizute badagoela jendea haiek baino okerrago bizi dena. 800 euroko diru-sarrerak dituenak esango dizu batez bestekoaren mailan dagoela, eta 1.800 jasotzen dituenak ere bai”.